

TOM SAWYRREN ABENTUAK (4)

MARK TWAIN

ITZULTZAILEA:
GILLERMO ETXEBERRIA



THE ESCAPE FROM THE CAVE.

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MARK TWAIN

Tom Sawyerren abenturak (4)

Itzulpena:

Gillermo Etxeberria

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

XXVIII. JOEREN GORDELEKUAN

XXIX. HUCKELEBERRIK DOUGLAS ALARGUNAREN BIZIA SALBATZEN DU

XXX. KOBAN GALDUTA

XXXI. AURKITU ETA BERRIRO GALDU

XXXII. HEMEN DAUDE, HEMEN DAUDE

XXXIII. JOEREN ZORITXARRA

XXXIV. ZER URRE PILAK!

BUKAERA

XXVIII. JOEREN GORDELEKUAN

Gauerako bi mutilak prest zeuden abentura arriskutsu hartan parte hartzeko. Bederatziak arte taberna inguruan ibili ziren. Batek inguruak zainduaz, besteak taberna beraren sarrera. Ez zen mexikar haren antzekorik ez sartu, ez irten. Gaua argia zegoen eta beraz, ez zen hura izango aukerarako onena. Tom etxera joan zen. Bazekien iluntzen bazuen zeharo, Huckek “miau- ka” egingo ziola. Orduan bera joango zen giltzak frogatzera. Baina gau hura gero ere argia izan zen. Beraz, Huck ere lotara joan zen, bere betiko kupel azpira.

Asteartean gauza bera gertatu zen. Eta asteazkenean ere bai. Ostegun gaua ordea, ilunagoa izan zen. Beraz, hartu zuen Tomek izebaren linterna zaharra, eta toalla lodikote bat, disimulatzeko. Zaintzen hasi ziren. Hamaikak edo horrela izango ziren, taberna zaharreko ateak itxi eta argiak itzali zirenean. Joeren aztarrenik ere ez. Kale ito hartatik ez zen ez inor sartu ez inor irten. Beraz, giltzak frogatzeko une egokia. Dena geldu zegoen. Urrutian trumoi hots itoak besterik ez.

Atera zuen Tomek linterna, kupelpean piztu eta toallaz estali zuen. Berehala abiatu zen taberna aldera. Atzetik Huck. Hau etxe ondoan gelditu zen eta Tom berriz kale itorantz. Giltzak probatzera. Minutu bat, bi minutu, hamar minutu. Azkenean batek ez dakit zenbat denbora pasa zen. Huckentzat eternitatea. Eta Tom ez zela itzultzen. Linterna argi izpirik ez baitzen nabaritzen. Zerbait gertatu ote zitzaion bada? Sustoz hilda edo ote zegoen?

Beraz, inguratzea erabaki zuen. Ez jakin nola. Ze berak sentitzen zuen beldur ikaragarria ez baitzen nolana hikoia. Bihotz taupadak inguru guztian entzuten zitzaizkiola iruditzen zitzaion. Arnasa ere falta. Zer zen, gero, hura?

Halako batetan... hara nondik azaltzen den argi errainutxoa eta Tom. Bapo!!

—Ospa, Huck, ospa Huck, alde egin ezak, bizi nahi baduk.

Ez zion alferrik esan. Hura izan zen hanka martxa, hura! Tximistak berak ere ez zituen harrapatuko. Bazirudien lehen itota zeuden bi hauspoak ere bizitu zirela. Bazirudien bihotza bera ere suspertu egin zela. Korri eta korri. Azkenean, herri atarian zegoen hiltegiara iritsi ziren. Eta hantxe sartu. Ze ekaitza ere gainean baitzuten. Orduan lasaitu zen Tom.

—Ikaragarria izan da Huck. Bizpahiru giltza frogatu nituen. Hurrengo sartzera nindoala maratila ikutu nuen eta besterik gabe, ez zait bada atea irekitzen...! Begiratzen dut barnera. Kentzen dut lanparatik toalla eta... han zegoen...!

—Nor, nor zegoen?

—Nor egongo zen bada? Ia-ia besoa zapaldu diot Joeri.

—Nola, nola?

—Han zegoen Joe, lurrean etzanda, bi besoak zabalik, begiko partxea kendu gabe.

—Jaungoiko maitea. Eta zer egin zenuen? Esnatu al zen?

—Ez, ez, ezta mugitu ere. Uste dut mozkortuta dagoela. Hartu nuen toalla, eta... ospa egin dut... Bai azkar.

—Noski, nik ere gauza bera egingo nuen, nola ez! Ni ez nintzen toallaz gogoratuko.

—Ba... ni bai. Bestela izebak ez nau bakean uzten eta...

—Eta zer? Ikusi al zenuen kaxa famatu hori?

—Ez nuen begiratzeko adorerik izan. Ez kaxa, ez gurutzea. Botila bat bai ikusi nuen, zeharo hutsa eta baso bat. Bai, bi kupel ikusi nituen, eta gela guztian botila pila. Noski, noski, orain ulertzen dut mamuen geletan zer gertatzen den.

—Zer gertatzen da bada?

—Mamuak ez, baino whisky botilak daudela han. Zuk badakizu herri honetan ezin dela whiskyrik saldu. Beraz isilpean edaten dute.

—Beharbada, beharbada. Bueno, Tom, baina pentsatzen jarrita ere, orain da kaxa hura eskuratzeko izan daitekeen unerik egokiena. Joe mozkortuta baldin badago...

—Bai...? Zoaz nahi baduzu!

Huck beldurtu egin zen.

—Ez, ez, beno... ez dakit.

—Horixe ezetz. Botila bat bakarrik zeukan. Bi edo hiru izan balitu, ez dut ezer esaten baina, batengatik...!

Isilune luze bat eta gero Tomek:

—Huck, hobe da Joe ez dagoenean saiatzea. Beldur gehiegi pasako dugu.

Baina, gauero zaintzen badugu, orduan ikusiko dugu irteten. Noizbait irtengo dela uste dut. Orduan bai, eskuratuko dugu kaxa hori.

—Ondo dago. Nik zainduko dut etxe hori. Egunez lo egin eta gauetz zainduko dut.

—Ondo dago. Eta badakizu. Berriren bat duzunean, deitu niri, beti bezala, “miauka”. Moldatuko naiz ni kaxa hori harrapatzeko.

—Oso ondo.

—Bueno, Huck, ekaitza ere amaitu da eta etxera noa. Laster egunak argituko du. Zoaz eta hasi zaitez zaintzen.

—Bai, Tom, bai. Agindu nuena beteko dut. Banoa zaintzera. Egunez lo egin eta gauetz zaintzen egongo naiz.

—Eta non egingo duzu lo?

—Ben Rogersen lastategian. Jake beltza ere han egoten da. Lagunak gara, ba al dakizu? Berak ura behar duenean nik ekartzen diot. Jatorra da oso. Zenbaitetan berarekin bazkaldu ere egin izan dut. Beltza izan arren... ez diot ni baino gutxiago denik adierazten. Eta nirekin pozik egoten da. Zuk ez ezer esan gero...

—Nahi duzuna, hori zure bizia da eta zu libre zara. Bueno, egunez behar ez bazaitut, utziko dizut lo egiten. Baina behar zaitudanean, han izango nauzu. Eta zuk berriren bat duzunean, badakizu... “miauka” egin eta... ados.

XXIX. HUCKELEBERRIK DOUGLAS ALARGUNAREN BIZIA SALBATZEN DU

Berri onak zabaldu ziren herrian. Hain zuzen, Thatcher epailea itzuli berria zen oportetatik. Eta harekin batera, Becky. Beraz, Joe indioak eta bere altxorak ez zuten garrantzirik Tomen buruan. Hura bai poza Tomek sentitu zuena! Arratsalde osoa pasa zuten jolasean beste lagun sail batekin. Zer egun zoragarria. Beckyk aspalditik zuen lagunei askari bat emateko asmo eta gogoia. Dakigunez egunik gabe atzeratu zen. Baina, orain, zorionaren erdian, presa zuen. Hurrengo egunean egin behar zen. Amari esan zion. Eta honek, nola ez, baiezkoa eman zion. Hura poza Beckyrena, eta ez txikiagoa Tomena. Ilunabarra iritsi zenerako, gonbidapen guztiak zabalduak zeuden eta gazte jendea ere hasi zen berehala hurrengo egunerako asmoak orekatzen. Tomek ezin zuen gau hartan lo hartu. Bazuen zenbait gauza buruan eta haiek eragozten zioten. Hurrengo egunean, txangoa eta askaria. Gau hartan, zori pixka batekin, Huckek deituko zuen. Eskuratuko zuten altxorra eta Beckyren aurrean aberats bezala azalduko zen. “Miauka” haren zain zegoen. Baina Huckek ez zuen miaurik egin.

Hurrengo egunean bildu zen gazte jendea ibilaldi ederrena egiteko. Handiak ere ez ziren falta. Andereño batzuk eta mutil gazte gidari batzuk ere bai. Bapozko itsasontzi bat alokatu zuten. Harantz abiatu ziren kale erditik. Batek otartxo bat zeraman, dena jakiz betea. Beste hark motxila leporaino janariz josita, hango hark paketea eta abar. Alaitasun ugari zabaldu zuten kaleetan zehar. Sid, gaixo zegoenez gero, ez zen azaldu. Mary ere etxean geratu zen izebari lagun egiten. Zera esan zion Thatcher andreak bere alaba Beckyri:

—Berandu izango da, noski zuek etortzerako. Beharbada hobe izango duzu gaurkoz kai inguruko lagun baten etxean lo egiten gelditzea.

—Ama, geratuko al naiz bada, Susy Harper lagunaren etxean?

—Oso ongi iruditzen zait. Eta ondo portatu zaitez. Inor nekarazi beharrik gabe.

Itsasontzi zaharra abiatu zen. Bitartean Tomek esaten dio Beckyri:

—Ba al dakizu zer egin dezakegun? Bada, Joe Harperren etxera joan ordez, mendixka igoko dugu eta Douglas alargunaren etxera joango gara. Berak ondo zainduko gaitu. Izozki bana ere emango digu. Ba al dakizu? Pilaka edukitzen ditu. Eta nor joango zain egoten da emateko. Ikusiko duzu zein pozik jarriko den gu joaten bagara.

—Bai ederki!

Becky ordea isildu zen une batean. Eta gero:

—Bai, baina, zer esango du amatxok?

—Zer jakin behar du amak?

Berriro ere Becky isilik. Eta gero:

—Haserretuko da jakiten badu baina...

—Bai, horiek zorakeriak dira. Zure amak ez du jakingo. Baina, horretan ezer txarrik ez dago. Berak zu seguru ibiltzea nahi du. Eta non egon zintezke alargun honen etxean baino seguruago?

Dudarik gabe, Tomek zioena, proposamen kitzikagarria zela. Beraz, laster konbentzitu zuen Tomek bere laguna. Baina ez zioten inori gau hartako gorabeherarik esango. Baina, gau hartan Huckek seinalea jotzen bazuen, zer...? Hori pentsatzean kezkatu zen zerbait. Baina, beste aldetik, zergatik jo behar zuen gau hartan bertan? Kasualitate gehiegia izango litzateke. Gainera, hain polita izango baitzen gau hura. Zer demontre Huck eta altxorra har zezatela popatik.

Bitartean baporea aurrera eta aurrera zihoan. Hiru kilometro eginak zituen. Eta baso adartsu baten ondoan gelditu zen. Gazteak lurrera jaitsi ziren. Entzutekoak ziren haien hizketa egin beharrak, barre algarak, alaitasuna eta abar. Baso eta mendi guztiak alaitu zituzten. Zer den, gero, gaztea izatea! Zein baino zein azkarrago abiatzen ziren gora. Izerdia bota behar baitzen. Bestela ere egoten ziren eserita. Eta hara bada, bota zuen hamaikak izerdi gogotik. Bai gose galanta ireki ere. Kanpamendura itzuli ziren jatera. Jatera, edo irenstera. Tripa bete eta gero, batzuek lo kuluxka egiteko gogoa zuten. Besteek, kontuak esateko. Denak pozik zeuden zumar adartsu baten azpian. Halako batetan, norbaitek dio:

—Nork etorri nahi du nirekin kobara...?

Denak prestatu ziren kobara joateko. Atera zituzten motxiletan eta zituzten kandela ugariak. Berehala abiatu ziren mendian gora.

Kobaren sarrera mendiaren saihetsean zegoen. Sarrerak A nagusiaren itxura zuen. Haritzezko atea irekita. Barrua txiki samarra zen, inguru guztian horma trinkozko mugak ikusten zitzaizkion. Hozkailu bat bezain hotza. Misteriozko barrutia zirudien. Eta handik basoko berdeak ederragoa zirudien. Eguzki ederrak jotzen zuen kanpoan. Hasieran sortu zen isiltasuna gazteen odol beroak hautsi zuen. Berriro ere barre eta algarak. Norbaitek kandela bat piztu zuen, baina besteek zaplastako bat emanda botatzen zioten. Hurrena beste batek gauza berbera egiten zuen. Batzuek argia nahi bazuten, besteek iluntasuna. Eta broma eta

alaitasuna ez zen falta.

Geroxeago denak sarreraren hurrena zegoen aldapa bat jaitsi zuten. Gero, ostera, gora, hirurogeiren bat metro. Bazegoen han non ibilia. Sarrera nagusiak zortziren bat metro besterik ez zituen, baina gero, adarretan zabaltzen zen eskuin ezkerrera. Denak estuak. Labirinto bat zirudien koba hark. Bide asko zituen, baina bazirudien denak leku berdinerantz itzultzen zirela. Zenbaitek zioenez, egun guztian ibili arren, han ezin zitekeen bukaerarik aurkitu. Nahiz igo, nahiz jaitsi, dena nahas-mahas, labirinto bat zen. Sekula bukatzen ez zen zulo luze bat. Ezin zitekeen dena ezagutu. Gazte gehienak lehen ere izanak ziren. Baina hasieran bakarrik. Handik ez baitzen normalki inor pasatzen. Tom Sawyerrek ere ez zekien besteek baino gehiago.

Pasadizo nagusitik aurrera joan ziren gehienak. Baina urrutiratu gabe. Kilometro eskasa edo horrelakoren bat. Gero, jolastienak ezker-eskuineko pasadizoetan ezkututzen ziren nor izutuko ote zuten sustoa emanaz eta abar. Baina leku ezagunetatik ez zen inor aurreratu.

Hura ikusita gero, denak atzera sarreraraino itzultzen ziren. Izerditan, hankak lokatzez eta arropak kandela tantoz josita. Bai ederki ibili zirela! Baina berandu egiten ari zen. Ilunabarra baitzen dagoeneko. Baporearen kanpaia jo eta jo ari zen azkeneko ordu erdi hartan. Berehala abiatu zen baporea. Berandutxo baina gutxi axola zitzaien. Hain ondo pasa baitzuten.

Ordurako Huck zain zegoen; bere eginkizuna betetzeko prest. Baporea pasa zenean ez zuen zaratarik entzun, ze barruko neska mutilak zeharo nekatuak baitzeuden. Inguruan pasa zen eta galdetu ere bai bere kasa zein itsasontzi izan zitekeen. Gero, berriro, buru belarriak bere lanera itzuli zituen. Iluntzen ari zuen. Gaurko hau, dudarik gabe, oso iluna izango zen. Itxuraz behintzat. Hamarrak jo zuten eta jadanik ez zen auto eta gurdi hotsik entzuten. Argiak ere itzali ziren. Jende guztia oheratu zen. Bakar bakarrik gure begirale gaztea zegoen esna. Gaueko iluntasun eta mamuen artean. Zain egon zen denbora luzean. Baina alferrik. Ez zen inoren arrastorik. Horretarako ere merezi al zuen zain egoteak? Han ez baitzen ezer gertatzen! Ez al zen hobea oheratzea, mundu guztiak egiten duen bezala?

Halako burutapenetan zegoela, bat batean, zaratatxoa entzun zuen. Bai, norbait, dudarik gabe. Kale estuko atea itxi zen poliki-poliki. Izkina batean gorde zen, adreiluen atzean, arnasa ere geraturik. Bi ziren zetozenak. Bi gizon eta bere ondotik pasa ziren. Batek, besapean zerbait zeraman. Zer ordea? Kaxa famatu hura ala? Ez jakin! Beharbada altxorra lekuz aldatzen ari ote ziren? Tomi deitu behar zion. Nola, ordea? Alferrik izango litzateke, ze haiek bistatik galduaz gero, alferrik izango ziren hurrengo lanak. Jarraikitzea erabaki zuen. Bai, haien atzetik joango zen, noranahi zihoazela ere. Eta ezkutalekutik irten eta oinkada arinean abiatu zen, bi gizaseme haien atzetik.

Urrutitik, baina urrutiegi izan gabe. Neurrian.

Etxeak utzi eta ibaiari jarraitu zioten. Gero zeharkako kale bat hartu zuten. Bide hura Cardiff izena duen mailo batera zihoan. Bidean galestar zaharra bizi zen. Handik ere pasa ziren, inora begiratu gabe. Aurrera zihoazen, beti aurrera. Arraioa dio bere kasa Huckek, harrobi zaharrea lurperatu nahiko diate kaxa hori! Arrania! Baina harrobitik ere igaro ziren gelditu gabe... Demontre! Mendingo barna zihoan bidezidor batetik jarraitu zuten. Laster sastraka tartean galdu ziren. Ez zen ongi ikusten. Huck berriz, ahaleginak eginaz, bi tunante haien atzetik, inguratu gabe baina bistatik galdu gabe. Joan zen aurrera eta bazirudien une batetan bistatik galdu zituela. Ez zen zaratatxo txikiena ere entzuten. Bere bihotzaren taupada gogorak, besterik ez. Urrutiko hontza baten ulu tristea! Pausorik ez, ordea. Arrania, non sartu ote ziren bi haiek? Dena galdu ote zen... Ai, ai, ai!

Korrika abiatzea hobe zela pentsatu zuen. Baina une hartan norbaiten eztarriak marranta egin zuen. Ondo ondoan. Bost bat metrotara. Aiba...! Bihotza ere eztarrian ito zitzaion. Makila bat bezala tinkatu zen, estatua bat bezala. Baina haren kopetako izerdiaren hotza! Bertan behera erortzen ez bazen, gaitz erdi. Bazekien non zegoen: Douglas alargunaren lurretara abiatzen den ataka ondo ondoan. “Ondo zegok —esan zuen bere kasa—; lurpera dezatela hemen. Ez duk leku txarra aurkitzeko”.

Orduan bertan ahots bat entzun zen. Ahots ito bat. Baina Huckek bazekien noren ahotsa zen hura: Joerena.

—Madarikatu alaena! Alargun horrek gaur bisita ote du bada? Oraindik ere argia ikusten da etxe barruan.

—Nik ez dut bada ikusten...

Norena ote zen beste ahotsa...! Duende etxean Joeri laguntzen zion beste harena. Noski! Heriotzaren hozberak eraso zuen Huck. Ospa egiteko gogo bizia sartu zitzaion. Baina, beste aldetik..., Douglas alargunak mesede asko egin izan zizkion berari. Beharbada, ez ote zuten bi haiek hura erail nahi? Pozik joango zen abisatzera. Baina ezin ordea... Eraile haiek harrapatuko zuten eta bertan desegin. Pentsa eta pentsa gelditu zen. Bitartean Joek erantzun zion besteari:

—Nola ikusiko duzu ba hortik, zarbastak daukazu aurrean eta... la honantz... Ikusten...?

—Bai, bai. Dударik ez dago. Bisita du. Hobe izango da bertan uztea.

—Utzi! Utzi! Eta zer? Aukera hau galtzeko gogorik ez dut. Ez naiz ni hemendik joango nire azioa egin gabe. Lehen ere esan nizun. Bere diruak bost axola zaizkit. Nahi baduzu, zuretzat. Baina bere senarra madarikatua... Zein gaiztoa izan zen nirekin. Alferrontzi bat nintzela eta ez

ninduen, bada, kartzelara sartu... Bai, epaile zela. Eta ez da hori bakarrik. Oraindik ere gehiago. Zigorkadak emanarazi zizkidan. Kartzela aurrean berebiziko zigorkadak eman zizkidan, herri guztia aurrean zegoela. Nik pasa nuen lotsa. Ezta beltz batek ere... Zigorkadak bai, odoletan utzi arte. Alferrontzi eta lapurra nintzela eta... Zerri hura hil zen. Hobe beretzat. Bestela... Baina nire ordaina eman behar dut. Hura ez dago, eta bere alargunak ordaindu beharko du... Bai horixe!

—Arren, Joe, ez ezazu akabatu. Ez ezazu horrelakorik egin!

—Akabatu...? Akabatu...? Nork esan dizu akabatzeko asmoa dudala? Bera bai, triskatuko nuke. Baina emakume bat ez da akabatzen... Hain dira bigunak. Ez, ez... Bestela jokatu behar da hauekin. Gorputza zauritu behar zaie. Gorputza. Sudurretik orratzak sartu, belarriak erdi moztu zerriekin egiten den bezala...

—Jainkoarren, Joe, Jainkoarren. Hori astakeria...

—Aizu adiskide. Gorde barnean zure iritzia. Hobe duzu, arrania! Odolusten bada, ez da nire errua izango... Ez dut nik horregatik negarrik egingo. Ez. Eta zuk, lagundu behar nauzu... Nik eskatzen dizut. Ez edozeinek. Horretarako etorri zara hona. Beharbada, ezin dut bakarrik egin. Zurekin bai. Ulertzen al duzu? Eta ez hasi zalantzan, ze orduan zeu hilko zaitut... Lehenengo zu, eta gero bera... Fuera! Orduan inor gutxik jakingo du gauza honen egilearen berri.

—Beno, Joe, beno. Ez zaitetz horrela jarri. Egin behar duguna egin dezagun. Azkar gainera. Dardarez nago baina...

—Dardarez zaude, oiloa! Eta bera bisitarekin. Ez zinen bada zu salatari izango...! Ez dakit zer pentsa. Dena dela, argi guztiak itzali arte egongo gara. Ez dago presarik.

Dena isilik gelditu zen. Nahiago zuen berriketa entzun, isiltasun sorgindu hura baino... Gelditu zuen arnasa... eman zuen pauso bat atzera... Kooontuz. Gero bestea... Zaratarik atera gabe. Adar batek “krask” egin zuen hankapean. Gelditu zen. Ezer ez. Dena bake bakean. Ez ziren konturatu. Gero, zarbasta batzuen atzetik horma ingurura jaitsi zen. Handik abiadura bizian abiatu zen behera... Erne. Harrobira iritsi zen. Orduan lasaitu bizi bat hartu zuen. Eta orduan ahal zuen lasterrena abiatu zen, korrika bizian. Iritsi zen galestar zaharraren etxera. Jo zuen atea. Berehala etxeko leihoetatik atera ziren galestarraren burua eta bere bi seme sendoenak ere.

—Zer gertazen da? Zer zaratak dira hauek garai hauetan? Nork deitzen du? Zer gertatzen da?

—Utz iezadazue sartzen, arren! Dena esango dizuet. Arren eta arren...

—Sartzen... ! Nor da bada?

—Huckleberry Finn naiz. Ireki azkar atea. Azkar eta azkar...

—Beraz, Huck zara... Ez duzu bada zuk oso fama ona... Ez lizuke edozeinek aterik irekiko. Baina... tira, sar zaitetz. Ikus dezagun zer nahi duzun.

—Arren, ez esan nik salatu dudanik —hasi zen Huck. Hilko nindukete. Baina alarguna andre ona izan da nirekin. Eta horregatik egiten dut. Baina, arren eta mesedez, ez esan ni izan naizenik salatari...

—Arrania, zer esan behar ote du bada mutiko honek? — esaten du galestar zaharrak. Esan azkar esan behar duzuna.

Hiru minutu barru, mendian gora abiatu ziren galestar zaharra eta bere bi semeak. Ondo armatuak. Eskutan pistola bana zeramatelarik. Aurrena Huck ere atzetik. Baina gero han gelditu zen, belarriak erne. Zer gertatuko ote zen zain. Berehala su armen tiro hotsa zabaldu zen mailoan.

Inork ez zekien zer gertatu zen. Ez zuen Huckek jakiteko gogorik ere. Arin-arin, ahal zuen bezain azkar, mendian behera alde egin zuen.

XXX. KOBAN GALDUTA

Egunsentiak argitu zuenerako, igande goiza zen, Huck bere kupelpetik irten eta galestar zaharren etxerantz abiatu zen. Berriak jakin nahi zituen. Zer gertatu ote zen edo... Lotan zeuden etxeakoak. Arin, ordea. Ze gau hura hain izan baitzen aztoragarria...

—Nor da? —galdetu zuten leihotik.

Eta Huckek ahots beldurtuaz:

—Arren, etxeakoak. Ireki atea. Utzi sartzen; Huck naiz.

—Oso ondo. Zure izena entzutea, nahiko da etxe honetako atea irekitzeko.

Ez zuen halako hitzik aspaldian Huckek entzun. Beti kontrakoak eta mespretxuzkoak entzuten ohitua baitzegoen. Ireki atea eta sartu zen barrura. Esertzeko agindu eta agurea bi semeekin inguratu zitzaizkion:

—Oso ongi, mutil. Gosetua egongo zarela uste dugu. Eguzkia irteten denerako, gosari bero beroa prestu edukiko duzu. Bazen garaia zu itzultzekoa. Zain geunden.

—Lehenago etorri behar nuen, bai. Baina tiroak entzun nituenean, halako beldurra sentitu nuen, ze lau kilometro egin arte ez bainintzen gelditu ere. Orain berriak galdetzera nator. Lehenago etorri banintz ere, ez ote nintzen bi deabru haiekin topatuko.

—Huck gajoa! Ikusten da bai, zein gaizki pasa duzun gau hau. Baina gure etxean zuretzat ohe bat prestatua dago. Gosaldu ondoren sar zaitzake. Eta berriei buruz... zera... ez genituen hil... zoritxarrez. Bagenekien non zeuden, zuk esanda. Hamabost metrotara inguratu ginen. Sasi tarte gehiegi dago han. Halako batean doministikua egiteko gogo ikaragarria sortu zitzaidan. Saiatu nintzen, baina alferrik. Egin behar, eta egin nuen doministikua. Besteek entzun zuten, eta inoren zain egon gabe, mendian behera ihesi hasi ziren. Nik orduan: “Jo su...” agindu nuen. Bakoitzak tiro bana bota genuen. Gero haien atzetik abiatu ginen mendian behera. Ez genituen harrapatu. Uste dut ez genituela zauritu ere. Gero konturatu ginen haien aztarrenik ere ez genuela. Zuzenean, “sheriff” jaunarengana joan ginen.

Egunak argitzen duenean, basora irteteko da bere mutilekin. Ez dakit harrapatuko dituen. Baina, ez dakigu nolakoak diren gaizkile horiek. Handiak, txikiak, ezertxo ere... Zuk ere, noski, iluntasun horretan ez zenuen gehiegi ikusiko...

—Bai, bai, herrian ikusi nituen. Eta haien atzetik joan nintzen.

—Aiba, aiba, esan orduan, esan, nolako itxurazkoak diren.

—Bat zera da: mexikarra erdi sor hori. Azkeneko aste hauetan bizpahirutan azaldu da hemen inguruan. Bestea berriz, zarpatsu miserable bat da...

—Aski da, aski da, badakit nortzuk diren. Behin basoan topo egin genuen. Haien ni ikustean ihesari eman zioten. Aurrera, mutilak, goazen sheriff jaunarengana, haien berri zehatz hauek ematera. Gero gosalduko duzue.

Galestarraren semeak berehala irten ziren. Eta Huckek esaten die:

—Arren eta arren, ez esan ni izan naizenik salatari.

—Bueno, Huck, ondo dago. Zuk nahi baduzu ez dugu esango. Baina gure iritzian hobe litzateke zure ekintza onaren berri zabaltzea. Zuretzat ere ez luke kalterik.

—Ez, ez, eta ez, arren ez esan. Ez dut inola ere nahi.

Eta besteak:

—Ondo dago, Huck, ez dugu esango. Zaude lasai. Baina zergatik ez duzu nahi esaterik?

Mutilak nolabait azaldu zuen barnean zeraman izua. Batik bat bi haietako bati buruz. Beraz... ez zuen haren hatzaparretan hil nahi.

Eta zaharrak:

—Ondo dago. Ez gaitezen horretaz gehiago mintza. Ez dugu esango. Baina, aizu Huck. Nola bururatu zitzaizun bi gaizkile hauei jarraitzea?

Isildu zen Huck. Ea nondik asmatzen zuen bada erantzun egoki samar bat.

—Bada... begira. Ni ere ez naiz zeharo zintzo horietakoa. Hori esaten dute behintzat. Eta nik neuk ere sinesten dut. Batzuetan jatorragoa izan behar nukeela ere pentsatzen dut. Hori berbera gertatu zitzaidan atzo. Ezin nuen lo hartu, hori pentsatuaz. Atera nintzen kalera. Eta han nenbilen noraezean. Badago bada, hor herrian, adreilu fabrika bat. Hantxe nengoen. Bada orduan, bi hauek nire ingurutik pasa ziren. Susmoan jarri nintzen, ze besa- pean kaxa bat baitzaramaten. Lapurtua izango zela pentsatu nuen. Bat erretzen zihoan eta besteak sua eskatu zion. Nere aurrean gelditu ziren. Pospoloaren suarekin aurpegiak ikusi nituen. Bata mexikarra erdi sor hori zen, bere masail bizar zuriekin, eta begiak partxe gorria zeramala. Eta bestea, arropatzar zarpail bat...

—Nola, nola? Pospolo baten suarekin arropa zaharrak ere ikusi al zenituen?

Huck dudatan jarri zen.

—Bada, ez dakit... ziur ez dakit. Baietz iruditzen zait.

—Eta haiek aurrera jarraitu zuten. Eta zuk?

—Ni atzetik abiatu nintzen. Hori da. Nora eta zertara zihoazen jakin nahi nuen. Ibiltzeko modua ere susmagarria baitzuten. Atzetik joan nintzaien alargunaren sarrera atean gelditu ziren arte. Zarpailtsuak bizpahiru hitz esan zituen. Eta mexikar horrek, alarguna zigortu eta odolustu egingo zuela agindu zuen. Hori lehen ere esan dizut...?

—Nola, hori guztia mexikar erdi sor horrek esan al zuen?

Huck larri sentitzen zen. Gauzak taxuz esan nahi baina, ustekabean hanka sartzen zuen. Ez zuen nahi galestarrak jakiterik nor zen mexikar erdi sor hura. Saiatu zen nolabait baina, gero eta kontraesan gehiago botatzen zituen. Zaharra berriz, berari begira, begirik kendu gabe. Eta esaten dio honek:

—Seme, ez ezazu nire beldurrik izan. Ez dizut nik okerrik egingo eta. Alderantziz, nire beharra duzunean, konta ezazu nirekin. Mexikar hori, erdi sorra dela esaten dugu. Herrian zeharo sorra eta mutua dela esaten dute. Zuk, Huck, badakizu ez dela ez sorra, ez mutua. Eta zerbait gehiago ere badakizu pertsona horri buruz. Zergatik ez didazu esaten. Nik ez zaitut salduko.

Huck zaharrari begira gelditu zen. Haren aurpegi leialak bigundu zuen. Eta esaten dio:

—Mexikar sor hori... zera da... Joe indiarra.

Galestarrak hori entzutean, salto egin zuen aulkian. Eta gero:

—Orain ulertzen dut asunto hau. Lehen andrea nola zauritu eta abar aritu zarenean, ez dizut hitzez hitz sinetsi. Zure hitz egiteko modua dela pentsatu dut. Orain ordea, sinesten dut. Indiarrek horrelako joerak baitituzte. Azal zuriko garenok, ez gara gauza horrela jokatzeko. Indiarrek ez dira berdinak.

Orduan aitona hitzun bihurtu zen. Alargunaren lurren aurretik itzuli baino lehen, bazterrak miatu zituztela, eta ez zela han odol zantzurik ikusten. Baina, pakete bat edo aurkitu omen zuten...

—Ze pakete?

Hucken galdetzeko modua susmagarria zen. Aitona konturatu zen. Zuri zuri zegoen Huck. Begiak zabal zabalik. Galestarra hari begira une luze batetan.

—Zer bada...? Zertaz harritzen zara... Zer izango zen bada... Lapurren erremintak ziren... Zer gertatzen zaizu orain berriz?

Huck altxa zen eta atsedean izugarri bat hartu balu bezala, berriro aulkian eseri zen. Kopeta izerditan. Aitona berriz, hari begira, harrituta:

—Bai, Huck, bai. Lapurrek ibiltzen dituzten erreminta horietakoak. Zer zela uste zenuen bada?

Zer erantzun behar zuen mutilak? Aitonaren begiak erne zeuden. Dena ikusten eta asmatzen zutela zirudien. Huckek zer erantzungo...? Edozer gauza. Eta zera esaten dio:

—Ez dakit bada... Iganderako liburuak edo...

Aitonak barre algara bizia bota zuen. Gorputz guztia algarak dardartu zuen goitik behera. Hucken erantzunak, zentzurik gabekoak baitziren. Gero Hucki esaten dio:

—Ai Huck! Kolore txarra duzu. Zuri-zuri zaude eta nekatua. Itxura txarrekoa. Ez naiz harritzen esaten dituzunak esatea. Zergatik ez zara lotara joaten? Ia atsedean gozoa hartzen duzun...!

Huck ez zegoen bere buruarekin pozik. Nola esan zitzakeen halako astakeria pila. Berak bazekien ziur samar, pakete hura ez zela altxorraren kaxa...! Alargunaren lur aurrean zegoela konturatu baitzen. Konbentzitu ere bai erreminta kaxa zeramatela. Baina erabat ziur ez. Eta aitona esan zionean, zera hura... nola aurkitu zuten kaxa bat edo... bera zeharo larritu zen... Altxorra ote zen edo... Haren larritasuna... Eta okerrena, ez zela izan gauza ezer ere disimulatzeko aitona aurrean. Titikume galanta bera. Dena dela, orain bazekien pakete hura ez zela altxorraren kaxa. Ziur zekien orain. Eta lasaitu ere egin zen gogotik. Altxorra “zenbakia bi” delakoan zegoen. Gordeta. Ez zen inoren hatzaparretan erori. Tom eta biak libre ziren hura eskuratzeko. Gaez joango ziren eta... inoren beldurrik gabe.

Gosaria bukatu bezain laster, galestarraren etxera jendea hasi zen. Huck etxe bazterrean gorde zen. Ez zuen nahi inork gau hartako harekin elkartzerik. Emakume eta gizon, denetik azaldu zen etxe hartan. Haien tartean Douglas alarguna ere bai. Zenbait herritar goraino joan ziren, alargunaren lurretaraino. Berriren bat ba ote zen edo ikustera... Izan ere, gau hartako gertakizuna herri guztian zabaldu baitzen.

Galestarrak gau hartako historia guztia kontatu zuen. Alarguna erdi malkotan zegoen. Nola eskertu zaharrari egin zion mesede handi hura?

—Aski da etxeoandre —erantzuten dio honek. Bada hemen nik baino merezimendu gehiago duena. Beregatik izan ez balitz, gure eginkizuna alferrik izango zen. Baina ez du bere izenik esaterik nahi. Berak abisua pasa ez baligu, gu ez ginen zure etxe aldera joango.

Geroztik denak jakin nahi izan zuten, nor izan ote zen abisua eman zuen pertsona. Galestarrak ordea, hitza bete zuen eta ez zuen esan. Denak jakin minez utzi zituen. Gero alargunak hitz egin zuen eta esan:

—Egia esateko, ohean nengoen irakurtzen. Zarata horrek ez ninduen esnatu ere. Zergatik ez zinen nire etxera etorri?

—Ez zuen merezi. Hala iruditu zitzaigun, behintzat. Hiltzaile haiek ez baitziren ostera itzuliko. Etorrita ere erremintak galduak zituzten. Beraz, zertarako joan zure etxera? Larritu besterik ez zinen egingo. Nire etxeko hiru morroi beltzak, hor egon dira zure etxe inguruan, gau guztian zain. Norbait baletor ere... Hara, oraintxe itzuli dira.

Aitonak izan zuen nahiko lan beste bi ordutan. Etortzen zen bakoitzak historia guztia jakin nahi zuen. Bati esan eta besteari errepika.

Oporretan eskolarik ez izan arren, Igandeko Dotrinan nahiko jende biltzen zen. Han zabaldu zen berri hau. Baina ez omen zegoen bi gaizkileen berririk. Elizkizuna bukatu zenean, Thatcher andrea Harper etxeoandreari inguratu zitzaion. Eta galdetzen dio:

—Zer, oraindik ere lo al dago bada nire alaba?

—Zure alaba? Zer bada?

—Bai, zer bada? —harriturik. Ez al du bada zure etxean lo egin?

—Nire etxean? Ezta pentsatu ere...!

Thatcher andrea zurbil gelditu zen. Ez al zion, bada, bere alabak han lo egingo zuela agindu? Orduan handik bertatik pasa zen izeba Polly lagun batekin solasean.

—Egun on Thatcher andrea. Egun on Harper andrea. Ez dakit non den nire mutiko bat. Tom falta zait. Beharbada zuen arteko etxeren batean lo egin ote duen edo jakin nahi nuke. Orain, elizara etortzeko beldurrez egongo da. Ai... Azaltzen denean, nik gorrituko dizkiot belarriak.

Thatcher andrea oraindik ere zurbilago jarri zen.

—Nire etxetik ez da pasa —erantzuten du Harper andreak.

Eta izeba Pollyk:

—Joe Harper, ikusi al duzu gaur goizean Tom?

—Ez, andrea.

—Noiz ikusi duzu azkeneko aldiz?

Joe pentsatzen jarri zen. Noiz ikusi ote zuen, bada? Ez zen gogoratzen. Laster hotsa zabaldu zuen eliz barrutian. Txangoan izan ziren andereño eta irakasleek ez zekiten ezertxo ere. Inork ez zekien Tom eta Becky baporean itzuli zirenik. Han inork ez zuen inoren berririk galdetu. Azkenean, norbaitek zioenez, koba barnean galduak izatea ere gerta zitekeen. Thatcher andrea zorabiatu egin zen. Izeba Polly negarrez.

Laster zabaldu zen berri latza herri guztian. Jo zituzten herriko kanpaiak. Ez zegoen beste biderik. Koban egongo ziren galduta. Beraz, jende guztia prestatu zen harantz abiatzeko.

Gaueko gertakizuna ere ahaztu zen zeharo. Prestatu zituzten zaldiak eta koba aldera abiatzeko. Txalupak ere bai. Ordu erdi batean berrehun gizaseme prest zeuden neska mutilen bila joateko.

Igande arratsalde hartan, herri hartako kaleak hutsik egon ziren. Bizitasunik gabe. Zenbait emakume izeba Polly eta Thatcher andrea bisitatzera joan ziren. Kontsolamendu pixka bat bederen eskaintzera. Ez baitzen gutxiagorako. Pasa ziren orduak, ordu luzeak. Gaua ere berdin. Bukaezina izan zen. Jendea berri zain. Noiz aurkituko ote zituzten. Egunak argitu zuenean, oraindik ezeren arrastorik ez. Kobatik mezu bat bidali zuten, ez ona, ordea. Janariak eta kandelak nahi zituzten lanean jarraitzeko. Thatcher Jueza ere barruan zen, besteekin batera. Itxaropena ez galtzeko agintzen zien etxekoei. Baina alferrik. Hori esatean ez zituen malkoak lehortzen.

Egunsentiarekin batera itzuli zen galestar zaharra etxera. Buztinez eta kandela tantoz josia. Ezin zuen gehiago. Sasoitsua izanik ere, urtetsua baitzen. Eta urteek ez dute barkatzen.

Eta Huck? Non ote zegoen Huck? Ohean oraindik. Baina sukarrak menderatua, zorabioak emanda zorakeriak esaten. Sukar latza harrapatu zuen. Herriko sendagile guztiak, berriz, hartzuloan zeuden eta nork zaindu hura. Douglas alargunari deitu zion, zaindu zezan. Emakume hark baiezkoa eman zion, ze Huck, beharbada ez zen hain ona; hala zioten

behintzat, baina, zer, ordea, ez ote zen hura Jainko seme beste edozein bezala? Galestarrak, bihotz onekoa zela ere esan zion:

—Noski baietz. Ez dut zalantzarik egiten —alargunak.

Eguerdian gehienak etxera itzuli ziren. Ezta arrastorik ere. Indartsuenak barnean gelditu ziren. Beno, arrasto arrastoak, zerbait bai. Sekula inor ibili ez zen lekutatik aztarrikatu zuten. Aurrera eta aurrera. Herri hartako jendea, behin ere ez zen hainbeste barruratu koba hartan. Orain ez zegoen beste biderik. Batzuetan itxaropena sortzen zitzairen. Adibidez, bideko sabaian, zera aurkitu zuten: kandela kez egindako bihotz bat, alderik alde ezpata zuelarik. Eta bi lekutan bi izen: Tom-Becky. Geroxeago, lurpean zinta gorri bat aurkitu zuten. Kandela tantoz zikindua. Thatcher andreak bere alabarena zela ezagutu zuen. Beraz hura zen berak azkenekoz utzitako erlikia. Malko tartean gorde zuen eskutan. Ez zegoen dudarik. Bere alaba hila zegoen. Eta erlikia txiki hura zen bere soinetik azken unean utzitako erlikia. Kuadrilak berriz, aurrera eta aurrera. Halako batetan urrutian argia ikusi zuten. Inguratu ziren, baina alferrik. Beste begirale batzuk ziren. Pistola tiroak ere bota zituzten. Ea bi gazte haiek entzuten zituzten. Erantzunik ez.

Eta horrela hiru egun eta gau, lan aspergarri eta itxaropenik gabekoan. Inork ez zuen bila jarraitzeko gogorik. Egun haietan, tabernan edari debekatuak aurkitu zituzten. Hori bekatu handi bezala kontsideratua izaten zen garai haietan. Baina, egoera honetan jendeak ez zion jaramonik egin. Huckek jakin zuen tabernako berri hori. Eta galdetu ere bai, edari debekatuen artean beste zerbait aurkitu ote zuten.

—Bai, —erantzun zion alargunak.

—Zer gehiago, zer gehiago?

—Droga batzuk edo... Baina haurra, zaude lasai eta isilik. Horrela ez zara sendatuko eta.

—Emakume, esan iezadazu gauza bat bakarrik. Nork aurkitu ditu gauza horiek? Tom Sawyerrek agian?

Alargunaren begitan bi malko azaldu ziren.

—Lasai mutiko, lasai. Lehen ere esan dizut ez hitz egiteko. Oso gaixo zaude eta atsedena behar duzu.

Beraz, alkohola eta drogak. Besterik ez zen azaldu. Urrearen arrastorik ere ez. Non ote zegoen urre hura. Beharbada, betirako galdu zuten haren arrastoa. Baina, zergatik egiten zuen negar alargunak?

Gauza guzti horiek pasa zitzaizkion Hucki burutik. Gero lo hartu zuen. Eta alargunak:

—Lo hartu du behintzat. Gaixoa! Tom Sawyer esan du. Jakingo balu zer gertatu zaion Tom Sawyerri.

XXXI. AURKITU ETA BERRIRO GALDU

Ikus dezagun orain zertan ibili ziren Tom eta Becky. Lehenengo, lagunekin batera abiatu ziren. Koba hura ikusgarria baitzen. Eta bazter ezagunenak, denek bazuten bere izena. Non batek “Atari”, besteak “Eliz Nagusi”, “Aladinoren Gaztelua” eta antzekoak. Gero gordeketan hasi ziren. Bazegoen han non ezkutatu. Aspertu zirenean, aldapa handi bat jaitsi zuten. Eskuin ezkerreko hormak izenez josiak zeuden. Turistek egindako gauzak, dudarik gabe. Aurrera jarraitu zuten. Ez ziren konturatu izenez betetako hormak bukatu zirela. Gero bata eta bestearenak jarri zituzten, bihotz bat tartean ipiniaz. Hurrena errekatxo bitxi baten ingurura iritsi ziren. Zoragarria benetan. Ur jauzi polit bat egiten zuen. Tomek kandelarekin ur jauziari argi eginaz, ikuskizun zoragarria bihurtzen zen. Haren atzean eskailera natural bat zegoen.

Bide estu batetik behera. Handik aurrera joatea beldurgarri izan zitekeen. Baina, nola menderatu jakin min hura? Ea, goazen aurrera. Eta jaitsi ziren. Ez, ordea argizari kearekin seinale bat egin gabe. Gero itzultzerakoan haren beharra izango baitzuten. Becky ez zen beldurtzen. Segi zuten aurrera. Gero eta leku bereziagoak ikus zitezkeen. Gizaldiz gizaldi naturak berak jositako edertasunak. Segidan, ezkerreko bide bat hartu zuten eta berriro kandelarekin egin zuten seinalea. Etxera itzultzean izango zuten zer esana eta zer kontatua.

Gero zulo zabal bat topatu zuten. Goiko sabaitik, estalaktika bitxi eta ugariak apuntatzen zituzten bere mutur zorrotzak lurrera. Bat ikusi, bestea ikusi, jira-bira inguru haietan ibili ziren. Nonahitik ibilbide ugari ikusten zen. Eta haietako batetik aurrera ekin zuten. Ia konturatu gabe. Geroxeago iturri garbi bat topatu zuten. Aska natural bat zuen azpian, dena kristal itxurazko eskamaz josia. Azpian estalagmita zoragarriak, gizaldiz gizaldi goiko itoginei erantzuna emanaz haziak. Aurrerago, sabaiepean sagu zahar ugari ikus zitezkeen, zintzilika. Hegaka sorgindua egiten zuten noizbehinka, ulu bereziak eginaz.

Tomek ezagutzen zituen sagu zaharren ohiturak. Eta bazekien arriskutsuak izan daitezkeela ere. Horregatik, haien artetik berehala atera zuen Becky pasadizo bateraino. Baina hala ere, sagu zahar batek hegaldi batez kandela itzali zion Beckyri. Eta haien atzetik joan ere bai puska batean. Ihesari eman beharra izan zioten neska mutilak haiengandik libratu nahi bazuten. Pasabide batetik bestera. Tomek beste zulo luze bat aurkitu zuen hurrena. Haren bukaera ez zen ikusten. Bazterrak aztarrikatzeko gogoia etorri zitzaion. Baina aurretik atsedean on bat hartzea hobe zela eta eseri ziren biak. Orduan hasi ziren barru barrutik kezkatzen.

—Badirudi aspaldi aspalditik gaudela hemen —esaten du Beckyk. Badirudi ez dudala aspaldi aspalditik besteen ahotsik entzun.

—Noski, hemendik ezin ditugu entzun. Haiek baino askozaz beherago baikaude. Eta ez dakit non ziur, edo hegoalderago, edota iparralderago. Ez dakit ziur.

Eta Beckyk:

—Noiztik gaude gu hemen, Tom? Ez al duzu itzultzea hobea izango?

—Beharbada bai, itzultzea dugu onena.

—Eta aurkituko al duzu bidea? Neretzako bide hauek nahastuegiak dira. Nik bakarrik ez nuke asmatuko.

—Uste dut baietz, aurkituko dudala. Baina tartean sagu zahar alu horiek beldurra ematen didate. Zer egin dezakegu bi kandelak itzaltzen badizkigute? Beste bideren bat aurkitu beharko dugu.

—Ez al gara galduko, Tom! Ikaragarria izango litzateke.

Eta neskaxa beldurtu zen posibilitate erreal hartan pentsatuaz.

Abiatu ziren bide batetik bestera. Zulo bakoitza aztertuaz. Ezagunik aurkitzen ote zuten. Baina denak ezezagunak ziren. Tomek aztertzen zuen bakoitzean, Beckyren begiak harengan finkatzen ziren. Baina ezer ezagunik ez zuten aurkitzen. Tomek ahotsa alaituaz esaten zion:

—Ez, hau ez da. Baina egon lasai aurkituko dugu eta.

Ibili eta ibili. Ez zuten bide ezagunik topatzen. Itxaropen guztiak galtzen ari ziren. Baina Tomek “laster aurkituko dugu” esanaz, aurrera jarraitzen zuen. Beldurra ugaldtu zitzaion bihotzean. “Laster aurkituko dugu” esan arren, hitz haiek ere bere zentzua galdu zuten. Negarrari eutsi nahi zion neskak. Baina ezin. Alferrik. Ez zen pauso erdi bat ere mutilarengandik urruntzen.

—Tom. Tom. Ez zaizkit sagu aharrak axola. Goazen harantz, goazen bide hartatik. Badirudi gero eta galduagoak gaudela eta.

—Entzun, entzun —esaten dio Tomek geldituaz.

Arnas hotsa ere garbi entzuten zen. Tomek oihu egin zuen. Dei hura kobazulo luzeetan galdu zen oihartzun itzaletan bihurtu arte.

—Ez ezazu berriz deitu, Tom, ikaragarria da eta —dio Beckyk.

—Bai, ikaragarria eta beldurgarria da, baina hala ere hobe dugu deitzea. Behar bada entzungo gaituzte. Eta berriz ere dei egin zuen.

Baina ez zuen inork erantzun. Itxaropena ere pikutara joan zen. Geldi-geldi jarri ziren, ea norbaitek nonbaitetik erantzuten zien. Ez, alferrik. Tom atzera itzultzen, gero aurrera, ezkerrera eta eskuinera. Zeharo galduak zeuden. Atzera itzultzeko bide guztiak berdinak ziren. Ez zekiten non zeuden.

—Tom, Tom, zergatik ez duzu seinalerik egin, zergatik?

—Zorua izan naiz. Ez nuen pentsatzen atzera itzuli beharrik izango genuenik. Ezin dut biderik aurkitu. Dena nahastua dago.

—Tom, Tom, ai, Tom, galduta gaude, galduta. Ez gara behin ere leku beldurgarri honetatik irtengo. Zergatik utzi ote genituen besteak?

Lurrean eseri eta negar garratzari ekin zion. Izuak ematen bazion, hura izan zitekeen txarrena. Tom bere on- doan eseri zen eta besarkada gozo bat eman zion. Neskari beldurrak arindu zitzaizkion. Bere negar isila, urrutiko harri biziak algara ito bihurtzen zuten. “Anima zaitetz”, esaten zion lagunak. Berak zuela errua eta. Hitz haiekin Becky animatu zen, eta Tom nora joan atzetik jarraituko ziola agindu zion, azken unera arte. Ze berak ere bai baitzuen bere erru puska. Eta ez txikia.

Abiatu ziren berriro, norabait. Nora zihoazen jakin gabe. Baina aurrera, beti aurrera. Hitzak esatea alferrik zen. Itxaropena galdua zegoen. Kandela ere ahitzen ari zen. Tomek oraindik bazuen kandela oso bat. Eta hiruzpalau puska txiki poltsikoan. Haiek ahitzen baziren... Ezin zituzten alferrik gastatu.

Nekea ere handitzen hasi zen. Baina ezin zen baldintza haietan nekatu. Gelditzearekin ez zuten ezer aurreratzen. Denbora irabazi behar zen. Joan norabait behintzat, inon gelditu gabe. Baina esertzea izan zitekeen txarrena. Heriotzari deitzea bezala.

Azken finean ordea, Beckyren hanka hezigabeak leher eginda, jarraitu ezinik geratu zen. Eseri ziren lurrean. Eta hasi ziren etxeoak, lagunak, denak gogoratzen. Becky berriro ere negarrez. Tom kontsolatu nahirik, baina ezin lortu.

Halako nekea baitzuen neskak, ze azkenean lotan gelditu zen. Tom poztu zen. Ez zion lo hark okerrik egingo. Bere izu aurpegia lasaitu zen. Bazirudien amets gozoak zituela. Azkenean irribarre bat ere nabaritu zion. Irribarre hark berari ere gogo berriak sortu zizkion. Berak ere behar baitzuen norbaiten animoa. Horrela gauzak, Becky umore onez esnatu zen. Baina, laster itzali zitzaizkion umore guztiak. Eta hala esan zuen:

—Nola egin dut hainbesteko loa? Nahiago nuen sekula esnatu ez banintz. Ez iezadazu honela

begira. Barkatu. Ez nuen hori esan nahi. Bueno, berriz ez dut esango behintzat.

—Lo ona egin duzu eta deskantsatu zara ongi. Orain badakit bidea aurkituko dugula.

—Froga dezagun, Tom. Goazen aurrera. Nik nire ametsetan izugarritzko erresuma eder eta xarmant bat ikusi dut. Uste dut harantz goazela.

—Beharbada, bai. Beharbada ez. Bueno, Becky, dena dela, goazen berriro aurrera.

Abiatu ziren. Baina gero eta animo gutxiagorekin. Zenbat denbora ote zeramaten koba hartan? Ez zekiten behar bezala kalkulatzeko. Egun bat? Bi egun? Aste bete? Baina hori ere ezin zitekeen ze kandelak ez baitziren oraindik agortu. Geroxeago Tomek isilik ibiltzeko agindu zion, ze iturri baten beharra baitzuten. Ur tantak entzun nahi zituen. Eta hara, berehala aurkitu zuten bat. Tomek atsedean hartzeko ordua zela agindu zuen. Baina Becky, ezetz, aurrera segi behar zela. Baina Tomek uko egin zuen. Eseri ziren. Tomek buztin pixka batekin gogortu zuen kandela. Burutapen galantak bazituzten barruan. Isilune luze bat. Eta gero Becky:

—Tom, gose naiz.

Eta Tomek, poltsikotik zerbait ateraz:

—Ba al dakizu zer den hau?

Becky irribarre motel batez erantzun zion:

—Gure ezkontzako pastela da, Tom.

—Bai, bai! Nahiago nuke kupel bat bezain handia balitz. Beste janaririk ez dugu!

—Askariatik hartu eta gorde nuen. Elkarrekin ezkonduko ginela amets egin nahi nuen. Handiek ere amets egiten omen dute.

Erdibanatu zuten pastel hura. Becky laster irentsi zuen. Tomek bere erdia erdi hozkaka. Han nahiko ur ba- zegoen. Gardena eta garbia. Edan zezaketen nahi haina. Ondoren Becky aurrera jo behar zela iritzi zuen. Baina Tom ez zegoen ziur:

—Becky, gauza bat esan nahi nizuke. Ez dakit gustatuko zaizun baina...

Beckyren aurpegia zurbildu zen.

—Zer esan behar didazu...?

—Becky, hemen geratu beharrean aurkitzen gara. Oraindik ez dizut esan baina, kandela punta hau besterik ez daukagu. Hemen gutxienez badugu nahiko ur edateko.

Becky negar intzirika hasi zen. Zer mina eta nahigabea haren barnekoa! Tomek kontsolatu nahi zuen. Alferrik ordea.

—Tom—esaten du gero Beckyk.

—Zer da Becky?

—Dagoeneko konturatu dira galdu garela eta gure bila ibiliko dira.

—Noski baietz, ez ezazu zalantzarik izan.

—Ia dagoeneko gure bila dabilta, ziur baietz.

—Oso litekeena da.

—Noiz konturatu ote dira galdu garela, Tom?

—Baporera itzuli zirenean, noski, iruditzen zait.

—Beharbada. Baina ordurako ilundua egongo zen. Konturatu ote ziren ez ginela itzuli?

—Ez dakit. Baina, dena dela, denak itzultzean zure ama behintzat konturatuko zen itzuli gabe zeundela.

Tomek hitz haiek Beckyengan izu larriagoa sortu zuten. Ze orduantxe bertantxe konturatu baitzen Becky amarekin izandako hizketaldiaz. Gau hartan lagun baten etxean lotan gelditzeko. Isilune luze bat izan zen. Eta gero berriro, Beckyren malko garratzak. Bazekien Tomek ere zergatik. Haiek galdu zirela konturatzerako, beharbada, hurrengo eguneko goiz erdia pasako zen. Nola kontura zitekeen lehenago ez zuela Harper andrearen etxean lorik egin?

Bi umeen begiak kandelari begira geratu ziren. Errukirik gabe bukatzen ari zen. Behatz batzuek falta ziren. Ia batere ez. Azken uneko su urdindua luzatu zen gorantz bereari eutsi nahiaz bezala. Gero kolpean behera ekin zuen ezinean bezala. Kea trinkotzen, atzera jo zuen, eskuin ezkerrera, keinu itoak eginaz. Segidan iluntasunik handiena hedatu zen kobazulo hartan.

Zenbat denbora pasa ote zuen Beckyk Tomen magalean etzanda konturatu zenerako? Nork daki. Beharbada asko, gutxi... Beraiei luze iruditzen zitzairen. Amets, lo, zer egiten zuten? Biak aztoratuta esnatu ziren. Heriotz atariak ematen duen beldur dardarez. Tomek, zerbait esan behar eta, dagoeneko haien bila zebiltzala esan zion lagunari. Oihu egitea izango zen onena. Norbaitek entzungo balie... Frogatu zuen. Baina iluntasun hartako harri biziek erantzun mutu eta sor itzuli zioten. Errepika luze batean. Hain beldurgarria iruditu zitzaion, ze berriro ez zuen egiteko ausardiarik izan.

Igaro ziren orduak. Eta gose ziren. Tomen pastel erdia besterik ez zen geratzen. Berriro ere zatitu eta jan zuten. Baina hura ez zen aski eta gose gehiagorekin gelditu ziren. Glandulak martxan jarri besterik ez. Gosea ireki...

—Ez al duzu entzun...? —esaten du bat-batean Tomek—.

Amasa ito zuten eta entzuten jarri ziren. Urrun zarata arin bat edo entzun zitekeen. Tomek segituan erantzun zuen. Buila hura entzun zuten aldera jo zuten tunel batetik jaitsiaz. Gero, berriro entzun zuten eta oraingoan inguru samarrean.

—Hemen dira, hemen dira —esaten du Tomek, gure bila datoz. Goazen Becky, goazen, bide onetik goaz eta.

Poz ikaragarria sentitzen zuten. Baina kontuz joan beharra zegoen, zeren lurtean putzu asko baitzegoen. Laster haietako bat aurkitu zuten. Sakona zirudien eta hantxe gelditu ziren. Badaezpada ere. Hiruzpalau metro bazituela zirudien. Edo hamar, edota ehun... Etzan zen Tom besoa luzatuaz. Baina ezin azpia jo. Han gelditu beharko zuten. Eta besteak etorri arte zain egon. Entzun zuten. Gauza garbia zen. Haien bila zebiltzan. Baina zarata urrutiratzen hasi zen. Berehala ez zuten ezer entzun. Hura nahigabea! Tomek deitu zuen eztarria urratu arte. Alfer-alferrik. Itxoin zuten baina alferrik. Geroztik ez zuten ezertxo ere entzun.

Tom eta Beckyk atzera jo zuten. Berriro iturri aldera. Denbora pasatzen. Berriro esnatu ziren. Goserik. Denbora geldi, oso geldi igarotzen zen han. Zein ordu luzeak! Dagoeneko asteartea izango zen.

Tom oso aspertua zegoen. Ideia bat bururatu zitzaion. Alegia, han aspertzea baino hobe zitekeela inguruko pasadizoak aztertzea eta begiratzea. Atera zuen poltsikotik “kometa” baten soka. Lotu zuen zoko batean eta abiatu ziren. Tom aurretik eta Becky atzetik. Zihoazen eran soka askatuaz.

Hogei metro pasa bezain laster, amildegi bat antzeman zuten. Sakona zirudien. Berriro ere etzan zen Tom lurtean, ea besoekin hondoa jotzen zuen. Gero eskuinera. Une hartan,

hogeiren bat metrotara, gizaseme baten besoa ikusi zuen. Beso hartan kandela piztu bat. Tomek "Biba" oihu egin zuen. Hemen daude. Beso haren atzetik gorputza azaldu zen. Gorputz bat. Gizon batena. Joe indiarra zen.

Tom zeharo elbarria balitz bezala geratu zen. Ezin mugitu ere. Harrizkoa balitz bezala. Geroxeago, poztu zen, ez gutxi, mexikarra (Joe, alegia), ezkututzen ikusi zuenean. Ez ote zuen bada Joek bere ahotsa ezagutu? Harrigarria nola ez zen inguratu desegitera. Auzi hartan esandakoak, ez zituen hark ahaztuak izango eta. Baina, garbi zegoen, ez zion antzeman. Leize zuloak ahotsa zeharo aldatuko zuen. Beldurraren beldurrez, gorputzeko gihar guztiak lasaitu zituen. Atzera iturrira joango zen. Eta ez zen handik mugituko.

Ezertarako ere. Ez zion Beckyri ezertxo esan. Buila, badaezpada ere egin zuela eta... kito.

Goseak, ordea, ez du barkatzen. Eta han egote hutsarekin ez zen ezer lortzen. Iturri ondoan, ez zegoen zer eginik. Egon ziren eta lo ere bai. Ostera, asmoz aldatu ziren. Hura zen gose amorratua. Zein egun ote zen? Asteazkena, osteguna...? Edo ostirala edo larunbata? Bilatzaileen zaratarik ez zen inondik sumatzen. Beste pasabideren bat aztertzeraz joan beharra zegoen. Baita Joe bera ikusten bazuen ere. Ez zitzaion jadanik axola. Baina Becky ahuldua zegoen. Barrendik goibeldua. Inorako gogorik gabe. Bertan nahiago zuela hiltzea esanaz... Laster, zalantzarik gabe. Tomi bazterrak miatzeko eskatu zion. Baina izateko kontu "kometaren" sokarekin. Eta noizbehinka itzultzeko haren ondora,. berriren bat ba ote zen edo adieraztera. Azken ordua etortzerakoan bere ondoan egongo zela zin eginarazi zion. Eta azken arnasa ematerakoan bere bi eskuak estu-estu estutuko zituela dena bukatu zela ikusi arte.

Tomen eztarrian pilatu ziren txistu guztiak. Irentsi ezinik bezala. Baina oraindik bazuen hark itxaropenik. Hartu zuen soka eta berriro abiatu zen pasabide ilun haietatik. Katuak bezala.

XXXII. HEMEN DAUDE, HEMEN DAUDE

Astearte ilunabarra zen. Gauak menderatu zuen San Petersburgoko herria. Negarrez. Bi haurren arrastorik ere ez inondik. Hamaika otoitz bero igo zen zerurantz. Alferrik, ordea. Kobatik ez zetorren berri onik. Bilatzaile gehienak itzuli ziren etxera. Eta bakoitzak bere eginkizunari ekin zion. Alferrik izango zen haien bila ibiltzea. Ez zituzten sekula aurkituko. Thatcher andrea gaixo zegoen. Zorakeriak esaten. Haren intziriak. Alabatxoari deitzen zion noizbehinka eta gero berriro maindirepean ezkututzen zuen bere aurpegi malkoz betea.

Izaba Polly eta triste zegoen. Bere ile zurixkak, zeharo zuritu zitzaizkion. Beraz, astearteko gau hartan jendeak, nekatua zegoenez, sakon lo egin zuen.

Baina gau erdian, herriko kanpaiak zarata biziari ekin zioten. Une batean kale ilunak jendez bete ziren. Urduri eta pozik zegoen jendea: "Atera denok, atera! Aurkitu dituzte! Aurkitu dituzte!"

Jendea atera zen, bada, kalera, eta kobarantz abiatu. Oso urrutira joan gabe aurkitu zituzten bi haurrak. Kotxe ireki batean zetozen, jende andana zaratatsu batez inguratuak. Kotxeak kaleetan zehar bere ibilia egin zuen.

Argi guztiak piztuak zeuden. Ez zuen inork geroztik lo egin gau hartan. Jende pila joan zen Thatcher epailearen etxera. Han zeuden bi haur galduak. Denak besarkada eta musu. Ama Thatcher, pozik baina negarrari eutsi ezinik. Izaba Polly zeharo zorionsu sentitzen zen. Eta Thatcher ere bai. Baina bere senarra ez zen etxean. Koban zebilen. Hark oraindik ez baitzekien aurkikuntzaren berri. Tom lasai eserita zegoen. Inguruan jende pila bat zuela. Berak barru hartako berriak esaten zituen. Beti bezala hornituaz eta borobilduaz.

Bukaeran zera esan zuen: nola pasa zituen bi pasabide luze luzeak. Soka guztia askatu arte. Gero, poltsikoan zuen hirugarren bat hari erantsi eta aurrera jarraitu zuela. Harantz iristean egunaren argi izpia ikusi zuela han urrutian zulo txo batean. Utzi soka eta ahal zuen moduan harantz joan zela eta nola bere oinetan ikusi zuen Mississipi ibaia, lasai-lasai, bere ur urdinak itsasora eramaten.

Gaua izan balitz, ez zukeen halako argitasunik ikusiko. Ezta pasabide haietara berriro itzuliko ere. Joan zen Becky zegoen lekuraino eta adierazi zion aurkitu zuena. Honek ordea, ez zion hasieran sinetsi. Bakean uzteko eskatu zion, bertan hiltzea nahiago zuela eta. Baina, Tomek ezetz, egia zela eta egia zela. Hartu zuen neska eskutik eta eraman zuen argiune hura azaltzen zen lekuraino. Atera zen Tom zulo txo, suge antzera arrastaka, eta lagundu zion Beckyri ere gauza bera egiten. Eseri eta negar egin zuten. Geroago gizon batzuk pasa ziren ontz txo batean. Tomek gertakizunaren berri eman zien. Gizon haiek ezin omen zuten sinetsi,

ze kobazulotik bost kilometrotara omen zeuden eta. Gero ordea, ontzitxoan sartu, eta etxe batera eraman zituzten. Han jan eta lo egin zuten ilundu zuen arte. Gero herrira ekarri zituzten.

Egunak argitu zueneko, Thatcher epaile jauna eta bere lagunak jakin zuten berri pozgarria. Koban ibiltzeko, soka erabiltzen zuten. Soka hari jarraituaz, aurkitu zituzten bilatzaileak koban, eta eman gertakizunaren berri.

Asteazken eta ostegun guztia, gau eta egun, ohean egon ziren neska mutilak.

Nekatuta sentitzen ziren. Tomek ere ez zuen uste hain nekatua egon zitekeenik. Ostiralerako Tom zeharo indarberritua zegoen. Becky ordea, igandera arte egon zen ohean. Jaiki zenean ere, bazirudien urte luzeko gaixotasun batetik atera zela.

Tomek jakin berri zuen Huck gaixorik zegoela. Ikustera joatea erabaki zuen. Aurrena ez zioten sartzen utzi. Gero, ordea, bai. Baina denbora motzerako. Eta hitz gutxi egiteko agintzen zioten. Douglas alarguna zain egoten zen begira. Ez baitzen Huck nekatzea komeni. Etxean jakin zuen Tomek Kardiff mailoan gertatutakoaren berri. Gero, erreka ondoan itota edo aurkitu zutela gizon arlote zarpatsua. Beharbada itota edo...

Bi aste igaro ziren. Tom Huck bisitatzera joan zen. Hau ere sendatu samarra baitzebilen. Bide batez, Thatcher epailearen etxera sartu zen. Nola ote zegoen Becky bere laguntzaria...? Epailea pozik zegoen. Eta oso berritsua. Kobako ipuin guztiak berriro kontarazi zizkion. Ba al zuen berriro harantz joateko asmorik galdegin zion. Asmorik ez zuela, baina ez lukeela problemarik izango, esan zion Tomek.

—Bai, bai, mutil hauekin! Zuk bezala pentsatzen dute beste askok ere. Baina zaude lasai. Ez da inor gehiago koba horretan galduko eta.

—Zergatik ez, bada, galduko?

—Ze, badira bi aste, koba sarreran burdinazko ate bat jarrarazi nuela. Burdinazko plantxak eta guzti jarri nizkion. Eta hiru sarraila. Ea nor den gauza hura irekitzeko. Giltzak, berriz, nik dauzkat etxean.

Tom, hori entzutean, zuri-zuri jarri zen.

—Zer gertatzen zaizu mutiko? Ia, lagunak, azkar, lagunok, ekarri baso bat ur. Ekarri baso bat ur eta toalla bat! Zer pasa zaio orain berriz mutil honi?

Ura ekarri eta aurpegia freskatu zioten.

—Mutil, mutil, etorri zaizu zentzua. Baina, zer gertatu zaizu? Zer pasa zaizu, Tom?

—Epaile jauna, Joe indiarra kobazuloan dago.

XXXIII. JOEREN ZORITXARRA

Minutu batzuen buruan berri hura herrian zabaldu zen. Laster, hamabi bat ontzitxo jendez bete, eta kobarantz abiatu ziren.

Ireki zuten burdinazko atea. Eta hura ikuskizun tristea. Joe lurrean zegoen. Hilda, atearen zirriztuari begiak josita. Bazirudien bere begiak libertatearen argia azken unera arte begiratu zutela. Errukitu zuen Tomek gizagaixo hura. Bazekien zenbat sufrituko zuen. Baina beste aldetik lasaitu ere egin zen. Ze gizon hari ikaragarritzko beldurra baitzion. Eta epaiketan deklarapen haiek egin zituenetik, ez zegoen lasai.

Joeren ondoan labana zegoen, zatibitua. Ate azpiko egurra ebakitzen aritu zen. Alferrik ordea, ze hura ebakita gero, kanpoan harkaitza baitzeukan. Egur hura moztean harkaitzik egon ez balitz ere, alferrik izango zuen. Zeren ate azpitik ez baitzen Joe bezalako gizon bat kabitzen. Berak hori bazekien. Zerbait egiteagatik ezpal bihurtu zuen egur hura. Sarreran, edozeinek ikus zitzakeen bospasei kandela, turistek utzitakoak. Orduan ordea, ez zen bat ere azaltzen. Joek bere gose gogorrean jan zituen. Sagu zahar batzuek ere harrapatu zituen eta irentsi, gordin-gordinik. Gizagaixo hura goserik hil zen. Inguruan estalaktita batek, noizbehinka tantotxo maitekor bat botatzen zion azpiko estalagmitari. Gizaldiz gizaldi egin zuen bezala. Joek, azpiko estalagmitan zokotxo bat egin zuen, goiko tantoa behekoan gera zedin. Tantoak, hiru minutuero erortzen ziren. Beraz egun guztian biltzen zen ura kafe koilaratxo batean kabi zitekeen.

Ur tanto hura aspaldidanik erortzen zen. Jesukristo jaio baino lehenagotik. Oraindik ere erortzen da. Eta gero ere, gu hemen gaudenok ez gaudenean ere, eroriko da. Gaur egun edozein turista koba hartara joatean, zera esaten diote bertako gidariek:

—Hau da Joek honela eta honela bere egarria asetzeko egin zuen zokotxoa. Goiko ur tantak biltzeko. “Joeren edalontzia” deitzen diote turistek.

Leizezulo inguruan lurperatu zuten hiltzailea. Inguru guztiko jendea etorri zen hura ikustera. Handi eta txiki, denak samaldan etorri ziren. Hainbeste denbora pasa baitzen gizon hura epaitu nahi zutenetik!

Lurperatu zutenean, ordea, zenbait pertsonari Joeri heriotz ondoko barkamena ematea on zela iruditu zitzaion. Sinadura pila bildu zuten. Batez ere emakumeen aldetik. Emakume hauek Gobernadorearengana joan ziren, heriotz ondoko barkamena eman ziezaion Joeri.

—Zuk segi al zenien?

—Nik, bai, nik. Baina ez nazazu salatu. Joek ere izango zituen bere lagunak eta beldur naiz. Neregatik izan ez balitz, gaur egun Texasen egongo zen lasai-lasai.

Huckek orduan, abentura guztia esan zion. Tomek ez zekien erdia besterik.

—Zalantzarik ez dago —esaten du Huckek. Whisky hura tabernan jaso zutenek, dirua ere jaso zutela. Hala iruditzen zait behintzat. Edo ez dakit... Nik ez dut ikusi behintzat.

—Egon lasai, Huck, diru hori ez dago “2 zenbaki” horretan sekulan egon eta.

—Eta zuk zer dakizu? Tom, zerbait ba al dakizu, ba, honetaz?

—Kobazuloan dago, Huck. Kobazuloan.

Eta Huckek:

—Bai ote? Eta nola dakizu?

—Diru hori koban dago. Eta kito!

Joek bospasei bizilagun hil zituen bere bizitzan. Baina zer axola zitzaion? Hilda zegoen, eta nola gero...? Beraz, harentzat barkamena lortzea bidezko gauza izan zitekeen.

Hurrengo egunean Tomek paseo bat ematera gonbidatu zuen Huck bere laguna. Huckek jakin berria zuen Tomen abentura xelege hura. Baina bazegoen zerbait tartean inork ez zekiena. Eta honetaz hitz egin nahi zuen Tomek Huckekin. Huck harritu zen:

—Badakit zer esan behar didazun. “2 zenbakira” joan zinela eta ez zenuela whisky besterik aurkitu. Inork ez dit esan zuk esan zenidanik. Baina, pentsatu nuen zu besterik ezin zitekeela izan. Eta era berean, badakit ez zenuela dirurik aurkitu. Ze, bestela, nolabait jakin eraziko zenidan eta.

—Tom, beti izan dut errezelo hau, diru hori ez dela behin ere gure eskuetara etorriko. Eta ikusi orain... Segi bai, egin nien behin, baina...

—Baina, Tom, txantxetan ala benetan ari zara?

—Benetan ari naiz. Bene-benetan. Nahi al duzu nirekin etorri? Bien artean aterako dugu.

—Nola ez bada...! Baina ez al gara galduko?

—Ez, ez, ez gara galduko. Orain badakit koba haren berri.

—Hori oso ondo dago. Eta nola dakizu zuk han dagoela diru hori?

—Ez iezadazu ezer galdetu. Ez badugu aurkitzen zuretzat nire atabala eta nire gauza guztiak. Nere hitza ematen dizut.

—Hori da, hori da gizonki mintzatzea. Noiz joango gara?

—Segituan, nahi baduzu? Indartuta al zaude?

—Oso barruan al dago? Izan ere, hasi naiz etxetik irteten baina oraindik... ez naiz gauza asko ibiltzeko.

—Huck, jendea ibili ohi den bidetik bost kilometro daude. Baina badago hor bidezidor bat nik ezagutzen dudana.

Haraino ontzitxo batean joango gara. Ur korronteak berak eramango gaitu. Aski dut itzultzerakoan arraun pixka bat egitea. Ez duzu ia mugitu beharrik ere izango.

—Aurrera, bada. Ez dezagun minuturik galdu.

—Ez dugu gauza askoren beharrik. Zakutxo batean soka ugari hartuko dugu, badaezpada ere. Pospoloak eta kandela batzuek ere bai. Janari pixka bat ere beharko dugu. Ez asko. Ogia, pipa batzuk. Nahiko dugu.

Bazkalondoan abiatu ziren. Auzoko baten ontzitxoa hartu zuten. Nagusia kanpoan zela, eta emazteak utzi zien. Laster jaitsi ziren behera. Eta gero Tomek:

—Begira iezaiozu harkaitz trinko horri. Kobazulotik honaino itxura berdina dauka. Hor ikus ezazu seinale zuri bat. Begiratu hor. Lubizi bat dago ondoan. Bada, nik egindako seinale bat da hori.

Hantxe lurreratu ziren. Eta orduan Tomek:

—Huck, hementxe dago inork ezagutzen ez duen kobazulo ezezagun bat. Ea aurkitzen duzun. Huck saiatu zen. Baina alferrik. Ez zuen arrastorik aurkitu. Orduan Tomek, zuzendu zituen bere begi eta besoak sastraka batzuetara eta esaten dio:

—Hementxe dago! Hementxe dago! Begiratu Huck. Munduko zulorik politena da. Aspalditik lapur izan nahi nuen. Baina ez nuen gordeleku bikainik aurkitzen. Orain badugu, badugu.

Baina ez gero inori esan. Asko jota, Joe Harper eta Ben Rogers lagunei. Beste inori ez. Zeren, kuadrila bat antolatu behar baitugu. “Tom Sawyerren kua- drila” deituko diote. Zer iruditzen zaizu Huck?

—Oso ondo, oso ondo. Baina nori lapurtuko diogu?

—Mundu guztiari. Oinezkoei. Horrela egiten dute beste lapurrek.

—Eta zer egingo dugu? Hil egingo al ditugu?

—Beno, baina, beti-beti ez. Lehenengo koban preso edukiko ditugu. Gero aska-saria ordaintzen dutenean...

—Zer da aska-saria?

—Zer izango da bada? Preso bat askatzeko eman behar den saria. Eta urtebetean ordaintzen ez badute, bada, orduan akabatzen duzu. Baina bitartean, ez. Noski, emakumeak ez dira hil behar. Preso jartzen dituzu. Baina minik egin gabe. Itsusiena ere, ez da hain itsusia izaten. Eta hain egoten baitira izutuak! Aaa! hori bai, bere erloju eta bitxiak, horiek guztiak kentzen dizkiozu. Lapurrak oso heziketa oneko pertsonak izaten dira. Hala esaten dute liburuek. Askotan emakume hauek zutaz maitemintzen dira. Eta orduan, nahita ere, ezin dituzu kobatik bidali. Eta botatzen badituzu, ostera atzera itzultzen dira. Hala diote liburuek.

—Arraio, zer polita den guzti hori! Hau hobea izango da, pirata izatea baino. Gainera, hemen etxe ondoan gaude. Egunen batan, zirkoa herrira etortzen bada, joan zaitezke.

Bitartean, tresnak prestatu eta leize zulora sartu ziren. Tom aurretik. Kobaren mutur bateraino joan ziren. Han, Tomek, soka muturra bazter bati lotu zion eta aurrera jo zuten. Pixka bat aurrerago iturri ezagunarekin topo egin zuten. Tomi dar-dar larri bat sortu zitzaion. Han zegoen kandela muturra, zeharo gastatuta. Ondo ikusi zuen Tomek hura itzaltzen.

Handik aurrera ahotsa ere jaitsi zuten. Benetan errespetua sortzen zuen hango iluntasunak. Hartu zuten beste bide bat eta berehala amildegiraino iritsi ziren. Baina ez zen hainbesteko amildegia. Zabal samarra izan arren, ez zen sakona. Buztina zeukan gogotik han behean.

—Gauza bat erakutsi behar dizut Huck —esaten dio Tomek.

Altxa kandela eta esaten dio:

—Begira ezazu han urrutira. Ikusten al duzu hura? Han urrutian, harkaitz handi hartan, kandela kearekin egin- dako zerbait?

—A, bai! gurutze bat da.

—Ondo da, non dago “2 zenbakia”?

Gurutzearen azpian, ez da? Han ikusi nuen Joe indiarra kandelarekin.

Hura ikusita gero, Huckek esaten dio besteari:

—Goazen Tom, hemendik. Beldurra sartzen hasi zait eta.

—Zer, zer? Alde egiteko hemendik, zergatik ordea? Eta altxorra hemen utzita?

—Apostu egingo nuke Joe indiarren anima hemen inguruan dabilela.

—Ez da posible, Huck. Ez da posible. Hemen ez, leize zuloaren hasieran ibiliko da. Han, hil zen inguruan.

—Ez, Tom, han ez. Hura diruaren inguruan ibiliko da. Badakit nik gero, non ibiltzen diren espirituak.

Tomek, zera zioen bere golkorako:

—Arraioa, behar bada honek arrazoia dik!

Eta errezeloa handitzen hasi zitzaion. Baina berehala erantzun zion Hucki:

—Zein tontoak garen, Huck! Espirituak ezin daitezke gurutze baten ondoan ibili.

Egia zen hura. Lehenago ez bururatzea ere...

—Ez zitzaidan burutik pasa ere, Tom. Baina halaxe da. Gurutze hau gure salbabidea izan daiteke. Bueno ba, has gaitezen kaxa hori bilatzen.

Buztina gogorra zen. Eta Tomek eskailera baldar batzuk ebaki zituen. Jaitsi ziren behera. Harkaitzaren azpian lau kobazulo zeuden. Hiru begiratu zituzten. Alferrik. Laugarrenean, harkaitzaren oin oinetan zegoen zuloan, ohe antzeko zerbait topatu zuten.

Tirante zahar bat, urdai azala, hegazti hezurrak. Baina han ez zegoen kaxarik. Jo hemendik eta jo handik. Han ez zegoen kaxarik.

—Bada, Joek, gurutze azpian esan zuen. Eta hau da gurutzearen azpi-azpia. Ez da noski, harkaitz barruan egongo. Harkaitza mugitzen ez zen ibiliko, uste dut.

Berriro ere ekin zioten bilaketari. Azkenean desanimatu egin ziren, ordea. Huckek ez zekien zer esan. Eta Tomek:

—Begira Huck, harkaitzaren alde horretan, hanka markak daude buztinetan. Eta ondoan argizari tantoak. Eta beste lekuetan ez da horrelakorik ikusten. Nola daiteke hori? Harkaitz horren azpian ote dago bada altxorra? Buztina aitzurtu dezagun.

—Ez da ideia txarra, Tom. Beharbada, beharbada.

Hasi ziren jo ta ke. Metro erdi bat egin zuteneko, egurren batekin topo egin zuten.

—Huck, Huck, entzun al duzu hori?

Garbitu zuten gaina. Ohol batzuk ziren. Ohol haiek arroka barnera zihoan beste zulo bat disimulatzen zuten. Kendu oholak eta sartu zen barrura Tom. Aurreratu zuen kandela. Baina ez zen zuloaren bukaera ikusten. Beraz, aztertzeraz joan beharra zegoen. Makurtu eta abiatu zen aurrera. Goitik behera zihoan bidea. Lehenengo eskuinera, gero ezkerrera. Huck bere atzetik. Bide buelta bat eman ondoren, oihu egiten du Tomek:

—Huck, hemen dago! Huck hemen dago kaxa!

Bai ba, hantxe zegoen altxorraren kaxa. “Amabirjinak” eta edukitzeko izan ohi diren moduko horma zulo batean. Ondoan polbora kupel huts bat. Bi edo hiru mokasin pare. Larruzko gerriko bat, eta beste zenbait huskeria.

—Azkenik, Tom, azkenik, gurea da, gurea da! Eta hatzaparrak urre piletan sartu zituen. Ezkotuak, hezetasunez beteak zeuden. Baina egiazkoak ziren. Aberatsak gara, Tom, aberatsak!

—Nik ez nuen itxaropena galtzen. Eta ikusten duzu? Hara, gurea da. Beno aizu, ez dezagun denborarik alferrik gal hemen barruan. Ikus dezagun zenbat pisatzen duen.

Hogeita bosten bat kilo pisatzen zuen. Tomek, nolabait baina altxa zuen. Baina ezin zuen behar bezala eraman.

—Ez zaio axola —esan zion lagunari. Hori ere pentsatua bainuen. Ikusi genuen lehen ere asko pisatzen zuela. Hementxe dauzkat bi zakutxo hauek. Sar dezagun hona dirua.

Dirua zakutan sartu zutenean, jo zuten gora, gurutze aldera.

Eta Huckek:

—Goazen orain fusilak ere hartzera.

—Ez, Huck. Hori ez. Horiek gero ere beharko ditugu lapurrak egiten garenean. Hor utziko ditugu. Badakigu non dauden. Eta hor ospatuko ditugu gure parrandak ere. Oso leku egokia ematen du horretarako.

—Eta zer dira parrandak?

—Nik ere ez dakit ziur. Baina lapurren liburutan, askotan azaltzen da “parranda” hitz hori. Haiek parrandak egiten badituzte, guk ere bai, egingo ditugu. Beno, goazen orain, gose amorratua dut eta. Txalupan jan eta erreko dugu.

Laster atera ziren kanpora, sastraka tartean. Begiratu zuten ingurua, badaezpada ere. Han ez zegoen bizidunen arrastorik. Iritsi ziren txalupara eta jan eta erre zuten nahi hainbat. Eguzkia ezkututzen hasi zen unean, ekin zioten itzulerari. Handik laster ailegatu ziren. Eta lurreratu ziren.

—Orain, zera egingo dugu —zioen Tomek. Gure altxorra alargunaren lastategiko ganbaran ezkutatuko dugu. Bihar elkartuko gara eta kontatuko dugu. Erdibana egingo dugu guztia. Gero leku hobegoren bat aurkitu beharko dugu. Zaude zu hemen eta zaindu zakuak. Bitartean ni karretilaren baten bila noa. Laster itzuliko naiz.

Itzuli zen karretila zahar batekin. Jarri zituzten han bi zakuak. Gainetik trapu zahar batzuk, disimulatzeko.

Galestar jaunaren etxe inguruan atsedean hartzeko gelditu ziren. Abiatzera zihoazen unean, galestarra irten zen eta esaten du:

—E...! Nor dago hor?

—Huck eta Tom Sawyer! Zer bada?

—Zein ederki! Etorri, mutilak, etorri nirekin. Denak zuen zain daude eta. Utzi niri karretila. Nik eramango dut. Zer daramazue? Adreiluak ala burdina?

—Burdin zaharrak —erantzun zion Tomek.

—Ez naiz harritzen. Herri honetako mutilek nahiago dute burdin zaharrak bildu eta saltzen, zerbait irabazi, txatarrazaleak bezala, lanean normal aritu baino. Baina zer egingo dugu bada... Horrelakoak gara gizonak eta.

Mutilek galdegin zioten, zertarako nahi zituzten haiek.

—Egon lasai, egon lasai. Laster ikusiko duzue Douglas alargunaren etxean.

Huckek, ordea, beldur baitzen, zera erantzun zion:

—Jones jauna. Ez dakit zer esan nahi duzun. Baina guk ez dugu ezer txarrik egin.

Eta galestarrak barrez:

—Hori da nik ez dakidana, Huck. Baina, zaude lasai. Ez al zarete ba adiskide onak, zu eta alarguna?

—Bai. Bera nirekin ona izan da, behintzat.

—Orduan zergatik beldurtzen zara?

Baina ez zen zeharo lasaitu. Igoarazi zituzten Douglas alargunaren egonlekuraino. Karretila, berriz, sarreran gel- ditu zen. Eta haien atzetik igo zen.

Gela goitik beheraino apaindua zegoen. Herri jende nagusia bertan zelarik. Han zeuden Thatcher senar emazteak, Harper sendikoak, Roger familia, izeba Polly, Sid, Mary, ministro bat, egunkari baten zuzendaria, eta beste jende asko. Denak goitik behera jantzi berriekin. Alargunak poz handienarekin hartu zituen bi zarpatsu haiek. Ez zen gero nolana hikoia bi haien itxura! Goitik behera buztinez eta kandela tantoz zikinduak. Izeba Polly lotsatu zen bere iloba egoera hartan ikusita. Baina larrienak bi mutilak zeuden. Zer egiten zuten leku hartan, trapu zahar haiekin eta beste guztiak hain apain jantzita? Zer lotsa! Eta altxorra karretilan? Edozeinek era- manda ere!

—Tom itzuli gabe zegoen —esaten du galestarrak. Baina halako batetan nire etxetik igarotzen ikusi dut Huckekin batera. Besterik gabe hartu eta ekarri ditut. Beraz, ez dute txukuntzeko astirik izan.

—Oso ondo egin duzu, gizona —erantzun zion alargunak.

Gero gela batera eraman zituen:

—Garbitu eta jantzi zaitezte. Hemen badago zuen moduko mutilentzat jantzia: galtzerdi, alkandora, zapata eta abar. Jantzi eta txukundu zaitezte berehala. Zuentzako erosi genituen. Behean zuen zain egongo gara.

Hori esatean alargunak alde egin zuen gelatik.

XXXIV. ZER URRE PILAK!

—Nahiago nuke soka bat topatuko banu. Leihotik zintzilik jarri eta alde egingo nuke. Lurra gertu dago eta ez litzateke hain zaila izango!

—Zer txorakeriak! Zergatik alde egin nahi duzu?

—Ez zaizkit hemengo lerdokeriak gustatzen. Hainbeste jende harro, gezurrak esaten. Ez zait batere gustatzen.

—Ez zaitetz zoroa izan. Hori ez da ezer. Niri ez zait batere axola. Egon lasai. Ez zaizu ezer gertatuko eta.

Orduantxe Sid azaldu zen.

—Tom —esan zuen, izeba Polly zure zain egon da arratsalde guztian. Maryk igandeko jantziak prestatu zizkizun. Baina ez zinen etortzen eta kezkatuak geunden. Aizu, eta zer duzu zure jantzian? Ez al da lokatza eta argizaria?

—Sid, begira. Zergatik egiten dituzu hainbeste galdera zoro? Zergatik ez zara zeure alkandoran kabitzen? Eta orain esan iezadazu: zer dela eta da gaurko festa hau?

—Alargunaren ohiturak dira. Noizbehinka honelako jaialdiak ematen ditu. Badakizu, bere alarguna alaitzeko edo... Gaurko hau, galestarra eta bere semeen omenez prestatu du. Badakizu nola lehengoan salbatu zuten. Eta nahi baduzu beste gauza bat ere esango dizut.

—Zer gauza?

—Bada, galestar horrek, Jones jaunak, sorpresa bat eman nahi du gaur. Sekretua omen da. Baina mundu guztiak daki. Alargunak berak ere bai. Ezezko itxura egin arren. Jonesentzat nahitaezkoa zen Huck hemen egotea gaur. Huck gabe ezin baitzuen sekretua adierazi.

—Zer sekretu, Sid?

—Zera, alegia: nola Huck joan zen lapurren atzetik alargunaren lur sarreraino. Jendea harritu egingo dela iruditzen zaio galestarrari. Baina inor ez da harrituko, zeren denek baitakite.

Eta Sid barre algaraz hasi zen.

—Baina nork esan dio jendeari? Zuk esan al diozu?

—Zer axola zaio nork esan dion jendeari? Norbaitek esan du, eta nahiko da.

—Sid. Zu izan zara hori jende artean zabaldu duena. Hara, egia esateko, miserable bat besterik ez zara. Hori, miserable eskas bat. Herri guztian ez dago besterik zu baino eskasagorik. Zu Hucken larruan egon izan bazina, oilo koldar odolgabeko bat bezala gordeko zinen. Baita kaketan ere, beldurraren beldurrez. Baina... zu halakoxea zara... Ez duzu gutxienerik kategoriarik. Ba al dakizu zer merezi duzun? Tori —eta masaileko pare bat eman zion. Gero ostikoka bidali zuen handik.

Geroxeago denak afaltzera eseri ziren. Jende larria alde batetik, haurrak bestetik. Une egokia iritsi zenean, Jones jauna bere hitzaldia ematen hasi zen. Bai, bai, bere semeak eta ez dakit zer. Baina bazegoen han beste bat... beste bat...

Eta halako itzal eta inguru tartean bota zuen sekretua. Hucken eginkizun famatu hura. Baina jendea ez zen harritu. Baina alargunak disimulatu zuen eta ikaragarri harritu izan balitz bezalako itxurak egin zituen. Mila esker, eta ez dakit zenbat gauza eman zizkion Hucki.

Douglasek seme ordeko bezala hartu nahi zuen Huck. Hala esan zuen. Etxean biziko zela beraiekin. Heziketa on bat emango ziola. Diru pixka bat aurreratzen zuenean, negoziotan ibiltzen erakutsiko ziola eta abar. Tom ez zegoen isilik egoteko, eta hauxe erantzuten dio:

—Huckek ez du horrelako laguntza beharrik. Huck aberatsa da eta.

Jendeak nahiko lan izan zuen barre- algara disimulatzen. Baina ezpainak estutu eta ez zuen barrerik egin. Isilik gelditu ziren. Tom, ez zen jendearen erantzun faltsu harekin pozik gelditu. Eta berriro:

—Huckek badu nahi hainbat diru. Badakit ez duzuela sinesten. Baina ez zaio axola. Egia da eta. Ez, ez, ez barrerik egin. Uste dut frogatu dezakedala. Zaudete, zaudete minutu bat. Atera zen Tom korrika. Denak harrituta zeuden, bata besteari begira, zer gertatuko zain. Gero Hucki begiratu zioten. Ez zuen hitzik ere esaten.

—Sid, zer gertatzen zaio Tom horri? Beti gauza xebreak egin behar ditu. Ez dakit nik, ez dakit...

Azaldu zen, bada, Tom, bi zaku astunak eskutan zituela. Eta mahai gainean bota zituen urre pila guztiak esanaz:

—Zer? Sinisten al duzue? Bai ala ez? Erdia berea da eta beste erdia, nirea.

Denak harri eta zur gelditu ziren. Hitzik gabe. Mutu. Hura zen gero urre pila. Hango inork ez zuen behin ere hainbeste urre batera ikusi. Nondik sortu zuten jakin nahi zuen jendeak. Tomek esplikatuko ziela agindu zien. Eta baita egin ere. Luzea baina benetan interesgarria. Jendeak arnasari ere eusten zion kontakizun hari jarraitzeko. Bukatu zuenean, zera esan zuen Jones jaunak:

—Nik sorpresa bat prestatu nuen gaurko. Baina orain ez du ezertarako balio. Oraingo hau bestea baino handia izan da.

Bertan kontatu zuten dirua. Hamabi mila dolar eta gehiago. Inork inoiz ikusi zuen diru pila baino gehiago . Eta han bazeuden aberatsak. Baina gauzetan, ez dirutan.

Esan beharrik ez dago zer zirrara sortu zuen berri hark herri txiki hartan.

Gezurra zirudien hainbeste diru batera egoteak ere. Inguru hartan ziren mamu etxe guztiak aztarrikatu zituzten. Ez zen ohol bat bestearen gainean gelditu. Ez mutil koskorak bakarrik. Jende larri asko ere ibili zen eginkizun horretan. Tom eta Huck ziren herri hartan pertsonaia miragarrienak. Haiek ziren nagusi jaunak bezala. Haiek esandakoa errespetuzko hitza zen. Lehen kaka putza izan arren. Haiek egindakoa, eredu. Haiek ez ziren edozer gauza esateko dira. Haiek esandakoa, beti zen garrantzizkoa. Odol urdinekoak ote ziren ere esan zuten. Errege odolekoak edo horrelako zerbait. Egunkariak bi mutilen bizitza eta mirari guztiak hitzez hitz azaldu zituen.

Douglas alargunak bere gain hartu zuen Hucken dirua. Inbertsio on bat eginez, ehuneko 6an jarri zien. Izeba Pollyk ez zekien zer egin eta Thatcher epaile jaunari eskatu zion, inbertitu zezala. Beraz, mutilek, eguneko izugarrizko errenta bikaina eskuratzen zuten: dolar bana aste barruan eta erdia igandetan. Garai hartarako asko baitzen hura. Dolar bat aski zen aste guttiko janari, etxe eta heziketa kontua egiteko orduan. Jantzi eta garbitu ere, hortxe nonbait.

Thatcher jaunak asko goratzen zuen Tom mutikoa. Ez zen edonor. Bestela ez zuen kobatik bere alaba aterako. Becky ere oso Tomen alde zegoen. Azaldu zion aitari zer nolako zigorra hartu zuen eskolan bere erruz. Aita dena bigunduta gelditu zen. Halako mutilik!

Thatcher jaun haren iritzian, Tom delakoa ez zen gero ere nolana hiko pertsonaia izango. Legegizon, gudari handi bat edo... Hura norbait izango zen. Ez zegoen zalantzarik. Eta berak lagunduko zion.

Huck geroztik Douglas alargunaren etxean bizi zen. Aberatsa zen mutila eta aberatsei zegokien itxurazko heziketa hartu behar zuen. Berak lagunduko zion. Huck ez zegoen batere gustura. Alargunaren morroi eta neskameek ez zioten zikintzen ere uzten. Berak garbitu,

orraztu, ia jantzi, oheratu eta abar... Sartzen zuten maindire garbiegien artean. Inon puskaturik edo orbanik ez zuten maindire tartean. Jatean ere labana eta tenedorea erabili behar. Aho zapia lepoan, basoa, platera, liburutan ikasi, elizara joan. Hitz egiterakoan ere kontuz esan behar ziren hitzak. Ez zen libre edozer gauza esatea. Noranahi begira jarrita ere, itxurazko heziketa hark, kateak eta trabak ipintzen zizkion.

Hiru aste pasa zituen egoera hartan. Baina ezin zuen gehiago. Eta halako batean ihes egin zuen. Alarguna bere bila ibili zen bi egunen buruan. Jendea kezkatu zen. Hirugarren egunean, Tom Sawyerrek aurkitu zuen. Hain zuzen, bazekien Hucken ohitura zaharren berri. Joan zen "hiltoki" atzeko kupel hutsen tartera. Han zegoen iheslaria. Han lo egin zuen. Gosaldu zuen lapurtu zuenetik. Eta pipa erretzen ari zen. Berriro ere arropa zaharrez jantzi zen. Haiekin pozik eta gustura sentitzen zen. Arropa berriekin, ostera, gaizki, egonezinez. Tomek berriro alargunaren etxera itzultzeko eskatu zion. Oso kezkatua zegoela eta. Baina Huck oso triste jarri zen:

—Ez iezadazu horrelakorik esan, txantxetan ere! Neuk nire larruan frogatu dut. Bizimodu hori ez da niretzat egina. Ezin dut eramanez. Goizero ordu berean jaiki, garbitu, orraztu... Begira, nazka gehiegi ematen dit. Ez dit ohetik kanpo inon lo egiten uzten. Jantzi alu horrek ito egiten nau. Haizea faltako balitzait bezala. Ezin naiz lasai eseri, lurtean etzan, lurtean arrastaka ibili. Gogoak ematen didana egin. Ezin dut. Gero elizara joan, gezurrak entzun. Aspertuta nago, aspertuta. Ezin dut eulirik harrapatu, ezin dut ezer egin. Igandero zapata berri eta garbiekin ibili behar naiz. Kanpaia jotzen dute jaterakoan. Kanpaia jotzen dute jaikitzerakoan. Dena neurtuta dago. Desesperagarria da, benetan.

—Baina zer uste duzu zuk, Huck? Besteok ere horrelatsu bizi gara!

—Eta zer? Hori ez zait niri axola. Ni ez naiz besteak bezalakoa. Ezin naiz izan. Nik ez dut katepean ibili nahi nire bizian. Arrantzara joateko baimena eskatuaz, igeri egitera joateko baimena eskatuaz, ipurdia garbitzeko ere baimena eskatuaz. Urka nazatela, orduan, nahiago dut. Azkeneko egunetan, ganbarara igotzen nintzen. Ba al dakizu zertara? Ba... birao batzuk botatzera... Bestela lehertuko nintzen alde guztietatik. Ez dit erretzen uzten, ez dit builarik egiten uzten, ez dit aharrausika egiten uzten, ez hazka egiten, ez milizkatzen... Eta Jaungoiko maitea..., egun guztian erreztatzen ari da. Ez dut halako atsorik ikusi. Alde egin beharra izan dut, Tom. Uler ezazu, Tom. Ez nuen beste biderik ikusten. Begira, Tom, aberatsa izatea ez da hain atsegina. Izorrapena galanta da. Orain gauza bat egin behar duzu, gero beste gauza bat, beti izerditan. Nahiago dut hiltzea. Hau da nire etxea, kupel hau, hauek dira nire jantziak, trapu zahar hauek. Hauen artean bizi nahi dut. Diru hori ez balitz, ez nuen hain gaizki pasako. Beraz, Tom, nire diruak zuretzako. Hartu zuretzako. Noizbehinka eman iezadazu durotxo bat eta aski dut. Orain goazen, eta eman eskumuinak alargunari.

—Huck, badakizu ezin duzula hori egin. Ez legoke ondo egina. Gainera, bizitza horretan

jarraituko bazenu, gero politagoa irudituko litzaizuke.

—Politagoa...! Ez dut uste. Ez dut ikatz piztuaren gainean eserita egon nahi. Eta kito! Ez dut aberatsa izan nahi. Basoa maite dut, kupel zahar hau, ibaiak, haien artean biziko naiz hemendik aurrera. Madarikatu alaena! Kobazuloa ere bagenuen, fusilak ere bai, lapurrak izateko gauza bereziak. Eta orain horrelako saltsa gertatzen zait.

—Huck —esaten dio Tomek—, ni aberatsa izan arren, berdin-berdin izango naiz lapur.

—Benetan esaten al duzu hori?

—Horixe baietz.

—Baina, Huck, gure kuadrilan sartzeko jatorra izan behar zara. Bestela ez dizugu sartzen utziko.

Eta Huckek triste:

—Zergatik ez didazue sartzen utziko, ba? Itsaslapur izatekoan onartu ninduzuen ba...!

—Baina, ez da gauza bera. Lapurra, pirata baino kategoria gehiagokoa gizona da. Leku batzuetan herriko nobleenak izan ohi dira.

—Aizu Tom. Ez al gara beti lagun onak izan? Orain ez nauzu noski, kuadrilatik aparte utziko, ez da?

—Ez nuke nahi, eta ez dut nahi benetan. Baina, zer esango luke jendeak? Zera esango luke: Tom Sawyerren kuadrila. A ze nolako desastrea! Eta zuregatik esango lukete. Eta hori...

Huck isilik gelditu zen. Barruan borrokan.

Eta gero:

—Ondo dago. Joango naiz, bada, alargunaren etxera. Eta beste hilabete igaroko dut han. Baina gero, lapur taldean sartzen uzteko baldintzarekin.

—Oso ongi Huck, horrela hitz egiten da. Goazen alargunarengana. Esango diot nik ez izateko zurekin hain zorrotza eta estua.

—Esango al diozu, Tom? Ba, oso ondo. Berak diziplina hori gutxitzen badu, nik egingo dut bestea. Askatasun pixka bat ematen badit, ganbarara igoko naiz biraoak botatzera, eta

ezkutuan erreko dut. Bestela lehertuko naiz. Noiz osatuko dugu lapur talde hori?

—Laster. Beharbada gaur gauean bertan egin dezakegu lehenengo bilera nagusia.

—Bilera hori zertarako?

—Lanean hasteko.

—Nola egingo dugu hori?

—Ba, hasieran zin egin behar izaten da. Ez dituzula ezergatik lagunak salduko, ez dituzula taldearen ezkutuak esango eta abar. Gauza guztien gainetik, familiaren gainetik, taldearen interesak geldituko dira.

—Zein ondo, zein ondo konponduko garen gure artean!

—Horixe baietz. Zin horiek gauerdian egin behar izaten dira. Lekurik ilunenean eta beldurgarrienean. Mamu etxe bat izaten da egokiena. Baina orain denak azpikoz gora daude, hondatuak.

—Ez zaio axola. Gauerdian, leku beldurgarri batean zin egiteak, gauza bitxia eta zirikagarria dirudi.

—Horixe baietz. Eta gainera, zerraldo baten gainean egin behar da, eta norbere odolarekin izenpetu.

—Hori, hori. Hori garrantzizko gauza da. Itsaslapur izatea baino askozaz bikainagoa. Alargunaren etxean egongo naiz, usteldu arte, nahi baduzu.

Eta gero lapur bihurtuko naiz. Eta inguru guztiko lapur talderik beldurgarriena izango gara.

BUKAERA

Hemen bukatzen dugu oraingoz. Mutiko baten istorioa da hau. Eta ezin dugu jarraitu. Bestela gizon bihurtuko litzateke eta. Gizonen nobela guztiak, gauza berdinetan bukatzen dira: azken finean ezkontzan. Baina mutikoen istorioak direnean, non moztu? Ahal den tokian.

Hemen azaltzen diren hamaika gizaseme bizi dira oraindik. Aberatsak eta zoriontsuak dira. Beharbada egunen batean, gazteen istorioren bat kontatuko dizuet. Lehen mutiko zirenak, zer nolako gizon eta emakume bihurtu ziren. Edo antzeko zerbait. Baina oraingoz, bego honetan gure istorioa.